



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko apirilaren 30a

44. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

—11-26/PRO-00005. Foru-lege proposamena, Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubideari buruzkoa. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-26/MOC-00073. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ehiza antolatzeke egungo planak luza ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (21. or.).

—11-26/MOC-00074. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen baitira lehentasun nazionala eta espainiarren ongizate-estatuaren jasangarritasuna berma ditzaten. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (22. or.).

—11-26/MOC-00075. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita El Sadar futbol-zelaian Espainiako gizonezkoen futbol-selekzio nagusiaren partida ofizial bat edo lagunarteko bat antolatzeari susta dezan, Espainiako Futbol Federazioarekin lankidetzan. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (25. or.).

—11-26/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Segurtasun Batzordea urgentziaz deitu dezan, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean ezarritako polizia-eredua garatzeko beharrezkoa den foruzainen muga desblokeatzeko. Mozioa erretiratzea (26. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—11-26/POR-00143. Galdera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean jasotzen den diskriminaziorik ezeko printzipioa bermatzeko jarduketari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (27. or.).

—11-26/POR-00144. Galdera, herri txikietan autonomoen jarduera sustatzeko neurriei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (28. or.).

- 11-26/POR-00145. Galdera, gazteek boluntariotzan parte hartzeari buruzkoa. Úrsula Pardo García andre-  
ak egin du (28. or.).
- 11-26/POR-00146. Galdera, Lombricultura Valtierra SLren egoerari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui  
jaunak egin du (29. or.).
- 11-26/POR-00147. Galdera, toki-entitateen gazterien arloko politikei buruzkoa. Úrsula Pardo García  
andreak egin du (29. or.).
- 11-26/POR-00148. Galdera, Nafarroako gazteen ongizate emozionalari buruzkoa. Úrsula Pardo García  
andreak egin du (30. or.).
- 11-26/POR-00149. Galdera, jakiteko ea zergatik ez diren ebatzi Erreniega aldean ikerketa-baimenak luza-  
tzea ukatzeagatik Geoalcali SLk aurkeztutako gora jotzeko errekursoak. Adolfo Araiz Flamarique jaunak  
egin du (30. or.).
- 11-26/POR-00150. Galdera, istripu-tasa murrizteko eta lan-mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko San  
Adriángo proiektu pilotuari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (31. or.).
- 11-26/POR-00151. Galdera, ostatu turistikoen arloko 2026 eta 2027ko ikuskapen-plan berriari buruzkoa.  
Ibai Crespo Luna jaunak egin du (32. or.).
- 11-26/POR-00152. Galdera, PAI hezkuntza-eredu bihurtzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak  
egin du (32. or.).
- 11-26/POR-00153. Galdera, gazte nafarrek industrian enplegua lortu ahal izateari buruzkoa. Miren Itxaso  
Soto Díaz de Cerio andreak egin du (33. or.).
- 11-26/PES-00107. Galdera, jakiteko ea Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Depart-  
amentuak zergatik ez zuen aurkeztu kontratuen plangintzari buruzko dokumentazioa 2024an. Ángel Ansa  
Echegaray jaunak egin du (34. or.).
- 11-26/PES-00108. Galdera, Nafarroako hirugarren sektoreari buruzko lege berriari buruzkoa. Raquel Gar-  
bayo Berdonces andreak egin du (34. or.).
- 11-26/PES-00109. Galdera, Nafarroako Inklusio-estrategiari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andre-  
ak egin du (35. or.).
- 11-26/PES-00110. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuaren eta KPMG aholkularitza-enpresaren arteko  
kontratuaren epea luzatzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (35. or.).
- 11-26/PES-00111. Galdera, iragan apirilaren 19an Tuterako harrera-pisu batean adingabe bat atxilotu iz-  
anari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (36. or.).
- 11-26/PES-00112. Galdera, sektore aeroespazialari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (36. or.).
- 11-26/PES-00113. Galdera, Geoalcali SLri 2011tik aitzina emandako meatze-ikerketarako baimenei  
buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (37. or.).
- 11-26/PES-00114. Galdera, Miguel Induráin Fundazioaren kirolariendako beken deialdiari buruzkoa.  
Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (38. or.).
- 11-26/PES-00115. Galdera, Nafarroako Net Zero Tech Valley strategiari buruzkoa. Ana María Elizalde  
Urmeneta andreak egin du (39. or.).
- 11-26/PES-00116. Galdera, Iruñeko aireportuko aire bidezko konexio berrien lizitazioa argitaratzeari  
buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (40. or.).
- 11-26/PES-00117. Galdera, Nafarroako Ubidearen “etorkizuneko erabileren” 2068ra bitarteko aurrerakin  
ekonomikoak eta interesak itzultzeko epea aldatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du  
(40. or.).
- 11-26/PES-00118. Galdera, etxeko eta zaintzen arloko emakume langileen diskriminazioari buruzkoa.  
Oihana Gallo San Román andreak egin du (42. or.).
- 11-26/PES-00119. Galdera, PFEZaren deflaktazioari buruzkoa. Idatzizko galdera bihurtzea (43. or.).

#### G SAILA:

#### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-26/GPER-00004. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2026rako plantilla organikoa (44. or.).
- 11-26/GPER-00004. 2025eko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren  
funtzionarioen zerrenda (47. or.).

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-26/PRO-00005. Foru-lege proposamena, Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubideari buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamenta-rioak Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubideari buruzko foru-lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKI-TZEN DA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Inklusio Aktibo-rako Eskubideari buruzko foru-lege proposamena.

**2.** Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru-lege proposamena, Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubideari buruzkoa**

HITZAURREA

(I)

Nafarroako Foru Komunitateak, gizarte-lagun-tzaren eta inklusioaren alorrean dituen eskumenak baliatuz, bere sistema publikoa garatu du azken hamarkadetan, zeinaren xedea baita gutxieneko diru-sarrerak bermatzea zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen eta horiek laneratzea eta gizarteratzea sustatzea. Azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeak aldi berean arautu zituen gizartera-tze-eskubideak eta errenta bermatua jasotzeari buruzkoak, eta azken hori oinarritzeko eta aldizkako prestazio ekonomiko gisa eratu zuen.

Alabaina, gaur egun diru-sarreraren bermerako eta gizarteratzerako politikak gauzatzen diren tes-tuinguru instituzionala, normatiboa eta sozioekono-mikoa oso desberdina da arau hori onetsi zenean zegoenarekin alderatuta, eta, beraz, beharrezkoa da eredia sakonki berraztertzea.

Estatuko araudian Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera onetsi izanak egiturazko elementu erabaki-garria sartu du gizarte-babeseko sisteman. Presta-zio hori diru-sarreraren bermerako zoru-prestazio gisa eratu da, laguntza-babeserako azken sare gisa pentsatua izan da, eta bateragarria da auto-nomia-erkidegoek beren estatutu-ahalmenak baliatuz gutxieneko errenta gisa ematen dituzten baliz-ko prestazio ekonomikoekin. Diseinu horrek autonomia politikoaren printzipioa errespetatzen du, eta modua ematen die autonomia-erkidegoei beren babes-ekintza modulatzeko hura beren lurraldearen ezaugarrietara egokitze aldera; eta, horrez gainera, argi eta garbi mugatzen ditu esta-tu-esparruaren eta erkidego-esparruaren paperak.

Edonola ere, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera eta erkidegoko errenta bermatua aldi berean existitze horrek gainezarpenak, konplexutasun administratiboa, eraginkortasunik ezak eta zailtasun operatiboak ekarri ditu. Hala utzi dute agerian Nafarroan egindako fiskalizazio-lanek, zeinek ohartarazten baitute ahuleziak sortzen direla xede bera, arau desberdinak eta aplikazioaren efektu konkurrenteak dituzten bi prestazioren elkarreaginetik. Testuinguru berri honetan, ezinbestekoa da foru-prestazioaren papera birzehaztea, araugintza-ahalmena guztiz baliatuz, jada estatuko araudiak bere gain hartu dituen eginkizunak ez bikoizteko eta haren balio erantsia sendotzeko.

Testuinguru honetan, foru-lege honen xedea da Nafarroako inklusio aktiborako eskubidea aitortzea eta garatzea Nafarroan, eta eskubide subjektibo gisa aitortu eta garatu ere, zeinek bermatzen baitu, behar besteko baliabide ekonomikoak jasotzeaz gainera, gizarteratzeko eta laneratzekeo prozesu profesionalizatu eta egituratu batean parte hartzea funtsean.

## (II)

Egiturazko aldaketa horrekin batera, ebidentzia empirikoak agerian uzten du indarreko eredia sakonki berritu behar dela haren eraginkortasunaren ikuspegitik.

15/2016 Foru Legearen indarraldian zehar bildutako esperientziak erakusten du egiturazko mugak daudela: prestazio ekonomikoaren gehiegizko zentralitatea, gaitz burokratikoak, gizarte-eta lan-hobekuntzako benetako prozesuak sortzeko sistemak duen ezintasun eskasa eta eraginkortasun urria gizarteratzeari eta laneratzeari dagokienez. Ezagutarazi diren ebaluazioek erakusten dute gaur egun errenta bermatuaren onuradun diren pertsona askok eskusio-egoeran jarraitzen dutela, eta sistemak ez duela lortzen autonomia-edo aktibazio-prozesu iraunkorrak sustatzea.

Azken hamarkadan, Nafarroako pobrezia-tasa nabarmen handitu da, % 9,6tik % 12,3ra igo baita, eta ia % 28ko hazkundea da hori. Hortaz, adierazle hori denbora-tarte horretan gehien hazi den autonomia-erkidegoa da, Estatu osoan erregistratutako beheranzko bilakaeraren kontra.

Halaber, Nafarroako errealitate sozialari buruzko analisi berriek, eta FOESSA Fundazioaren txostenetan jasotakoek bereziki, agerian utzi dute 2018 eta 2024 artean herritarren kopuru esanguratsu bat integrazio osoko eta gizarte-esklusio apaleko egoeretatik gizarteratze eskaseko egoeretara igaro dela. Bilakaera horrek dinamika anibalentea taxutzen du, prekaritate sozialaren eremua zabaltea dakarrena.

Analisi horiek agerian utzi dute, orobat, gizarte-esklusioaren irismena mundu-mailan murriztu izanak ez duela hobekuntza eraginkorrik ekarri sozialki zaugarrienak diren herritarrentzat, egonkor gelditu baita Foru Erkidegoan gizarte-esklusio larriko prozesuetan dauden pertsonen ehunekoa, zeinek eragiten hamarnaka mila pertsonari.

Ildo berean, FOESSA Fundazioaren txostenek azpimarratzen dute etxeetako diru-sarreraren izaerak inpaktu erabakigarria duela gizarte-esklusiorako arriskuan. Zehazki, egiaztatu da diru-sarrerarik gabeko etxeetan edo jatorria gizarte-babesean duten diru-sarrerak soilik jasotzen dituzten etxeetan bizi diren pertsonen gizarte-esklusio-tasa nabarmen handiagoak dituztela, % 42,9ra iristen baitira. Horren kontrako aldean, eskusio-tasak nabarmen murrizten dira jatorria gizarte-babesean duten diru-sarrerak eta lan-jardueratik datozen diru-sarrerak konbinatzen dituzten etxeetan, % 14,9ean kokatuta, eta are gehiago murrizten direla lanetik datozen diru-sarrerak soilik dituzten etxeetan, % 9,7koa baita tasa.

Datu horiek erakusten dute diru-sarreraren bermea, babes sozialeko ezinbesteko elementua izanik ere, ez dela nahikoa bere horretan eskusioa prebenitzeko, eta sendotu egiten dute aktibaziora, laneratzerara eta autonomia ekonomiko eta sozialeko ibilbideak sortzera bideratutako politika publiko-aren beharra.

Era berean, Nafarroako Kontuen Ganberaren fiskalizazio-txostenek adierazi dute sistemak ahulezia garrantzitsuak dituela lan-aktibaziorako ahalmenaren ikuspegitik. Zehazki, lan egiteko prest dauden onuradunen laneratze-mailak murriztu egiten dira, eta sistemak ez du behar besteko informazio sistematikorik horiek lortzen dituzten lanen kalitateari, egonkortasunari eta iraupenari buruz, eta horrek zaildu egiten du inklusio-tresna gisa duen benetako eraginkortasunaren ebaluazio objektiboa.

Halaber, txosten horiek agerian utzi dute urritasun garrantzitsuak daudela sistemaren kontrol-, jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoetan, bai errenta jasotzen hasteko eta jarraitzeko eskakizunak betetzeari dagokionez bai inklusio-prozesuekin lotutako betebeharreri dagokienez. Urritasun horiek mugatu egiten dute Administrazioak honakoetarako duen ahalmena: baliabide publikoen erabilera zuzena bermatzeko, ez-betetzeak haute-mateko, disfuntzioak zuzentzeko eta sistema emaitza egiaztagarrietarantz bideratzeko; eta horrek guztiak eragina du sistemaren efikazia orokorrean eta zilegitasun sozialean.

Elementu horiek agerian uzten dute indarrean dagoen ereduak nagusiki transferentzia ekonomikoan oinarritutako garapena izan duela, eta gizarteratze-eskubideak ez duela horren pareko eraginkortasunik izan.

## (III)

Europar Batasuneko Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 30eko Gomendioak, inklusio aktiboa bultzatuko duen gutxieneko errenta egoki bati buruzkoak, dioen eran, “enplegu iraunkorra eta kalitatezkoa da pobreziatik eta gizarte-esklusiotik ateratzeko modu onena”. Hori oinarri hartuta, forulege honek politika publikoaren lehentasunezko xede gisa finkatzen ditu laneratzea, enplegarritasunaren hobekuntza eta parte-hartze aktiboa.

Testuinguru horretan, forulege honek paradigma-aldaketa bat dakar, inklusio aktiboko eredu baterantz bideratzen baitu diru-sarreraren bermerako sistema.

Inklusio aktiboa, beraz, prozesu integral gisa ikusten da, zeinak konbinatzen dituen, batetik, behar besteko baliabide ekonomikoen bermea, eta, bestetik, pertsonen aktibazio soziala eta laborala, haien enplegarritasunaren hobekuntza eta beren autonomiarako behar dituzten zerbitzuetarako benetako sarbidea. Hori horrela, prestazio ekonomikoak sistemaren ardatz nagusi izateari uzten dio, eta gizarteratze- eta laneratze-prozesuari laguntzeko tresna bihurtzen da. Babes ekonomikoak ez da sistemaren xedea, inklusio aktiboa ahalbidetzen duen bitartekoa baizik.

Hortaz, Administrazioaren eta onuradunaren arteko erantzukidetasunaren inguruan antolatzen da sistema, lan- eta gizarte-inklusiorako ibilbide indibidualizatuen bidez, eta elkarrenganako konpromisoekin, jarraipen eraginkorrekarekin eta prozesua emaitzetara bideratuta.

## (IV)

Nafarroako inklusio aktiborako eskubidea eskubide subjektiboa da, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea bermatzera bideratutakoa. Eskubide hori ez da prestazio ekonomiko bat jasotze hutsean gertatzen; aldiz, esku-hartze publikoko eredu integral baten bidez artikulatzen da.

Horretarako, forulege honek Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistema ezartzen du, eskubide hori benetan egikaritzeko egiturazko tresna gisa pentsatuta dagoena. Funtsezko bi ardatzen inguruan antolatzen da sistema hori:

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesua (NIAP) eskubidearen funtsezko edukia dena. Gizarteratzeko eta laneratze ibilbide egituratua, profesionalizatua eta pertsonalizatua da, autonomia pertsonalera, parte-hartze sozialera eta lanean hastera bideratuta dagoena.

2. Sistemaren berme ekonomikoa, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarriaren bidez gauzatzen dena; inklusio-prozesua gartzeko behar diren baldintza materialak ziurtatzeko laguntza-tresna gisa erabiliko da. Prestazio hori ez da eskubidearen funtsezko edukia, elementu osagarria baizik, eta, hura lortzeko, forulege honetan ezarritako eskakizunak bete beharko dira.

Horrela, Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistema egitura integratu gisa eratzen da, zeinetan inklusio-prozesuak eta berme ekonomikoak modu koordinatuak eta osagarrian jarduten duten, inklusio aktiboa ez dadin automatikoki lotu prestazio ekonomikoak jasotzearekin.

Arkitektura horri esker, honako hauek bereizten ahalko dira argi eta garbi:

- Eskubide subjektibo exijigarria, inklusio aktiborako prozesuan sartzeari dagokiona.
- Berme ekonomikoa, lege ezarritako eskakizunak betetzearen mendekoa.
- Inklusio aktiborako sistema publikoaren esparru zabalena, zeinetan sartzeko ahal diren zaurgarritasun-egoeran dauden beste pertsona batzuk.

Hori guztia ere du berriaren oinarri diren proportzionaltasun- eta erantzukidetasun-printzipioekiko koherentziaz eta emaitzetara bideratuta.

## (V)

Eredu berriak argi eta garbi bereizten ditu Estatuari dagozkion eginkizunak eta foru-erkidegoari dagozkionak.

Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko eginkizuna dagokio, eta Nafarroako Foru Komunitateak, berriz, bere eskumenen esparruan, esparru osagarri bat lantzen du, inklusio aktibora, autonomia pertsonalera eta gizarteratze eta laneratzerara bideratuta.

Foru Komunitatearen prestazio ekonomikoa, beraz, Estatuaren sistemarekiko foru-osagarri gisa eratzen da, zeina lotuta egonen baita derrigorrean gizarteratze- eta laneratze-prozesu batekin, eta hartatik sortutako betebeharrak betetzeko baldintzapean gauzatuko baita.

Ikuspegi horrek esan nahi du sendotu egin behar direla prestazioa eskuratzeko eta jasotzen jarraitzeko eskakizunak, onuradunen betebeharrak argitu behar direla, jarraipen- eta kontrol-mekanismo eraginkorrak ezarri behar direla, eta ez-betetzeetarako neurrizko ondorioak aurreikusi behar direla, baliabide publikoen esleipen egokia eta sistemaren efikazia bermatze aldera.

## (VI)

Inklusio aktiboaren ikuspegi integratuan oinarritzen da foru-lege hau, eta erabat lerrotatuta dago Europako eta Estatuko esparru estrategikoarekin.

Europari dagokionez, esan dugun eran, inpirazio-iturri du Europar Batasuneko Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 30eko Gomendioa, inklusio aktiboa bultzatuko duen gutxieneko errenta egoki bati buruzkoa, zeinak hiru osagarri bereizezinetan oinarritutako eredu bat finkatzen baitu:

1. errenta egoki baterako laguntza,
2. funtsezko zerbitzuetarako eta gaikuntza-zerbitzuetarako benetakosarbidia, eta
3. laneratzearen sustapena, enplegu-politika aktiboaren bidez.

Era berean, Eskubide Sozialen Europako Zuta-beari egokituta dago, eta 14. printzipioari bereziki, zeinak aitortzen baitu inklusio-ibilbideekin eta zerbitzuetarako sarbidearekin lotutako gutxieneko errentako prestazio egokietarako eskubidea.

Estatu-mailan, modu osagarrian eratzen da legea, eta 19/2021 Legeak araututako Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerarekin koordinatuta, eta haren araudian aurreikusitako inklusio-ibilbide integratuko eta koordinatuko tresnekin ere.

Nafarroako Foru Komunitateak, gizarte-laguntzaren alorrean duen eskumen osoa baliatuz, eta 2022ko martxoaren 31ko eskualdatze-akordioaren bidez Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kudeaketa bere gain hartuta, aktibaziora, autonomiara eta laneratze eta gizarteratzerara bideratutako maila osagarri bat garatzen du foru-lege honen bidez.

## (VII)

Inklusio Aktiborako Eskubideak, eraginkorra izanen bada, eskatzen du prestazioetarako eta laguntza-prozesuetarako sarbidea gertatu dadila hartzaileen zaurgarritasun-egoerarako egokiak diren epeetan. Beraziki, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kudeaketan bildutako esperientziak agerian uzten du gaur egun Estatuko legedian aurreikusita dauden gehieneko ebazpen-epeak, askotan, luzeegiak direla, kontua hartuta

berehalako behararekin lotutako egoerei erantzuteko xedea duen prestazioa dela. Testuinguru horretan, Nafarroako Foru Komunitateak, bere gain hartutako eskumenak baliatuz, izapidetze-eta ebazte-denborak benetan murriztera bideratu behar du bere jarduna, administrazio onaren printzipioaren, eskubide sozialen tutoretzat eraginkorraren eta inklusio aktiboko politiken eraginkortasunaren funtsezko elementu gisa.

## (VIII)

Sistema eraginkorra izan dadin, gobernantzak integratua, koordinatua eta emaitzetara bideratua izan behar du.

Xede horrekin, legeak sendotu egiten du gizarte-zerbitzuen, enplegu-zerbitzuen eta beste sistema publiko batzuen arteko koordinazioa, eta esku-hartzearen ikuspegi integral bat sustatzen du. Era berean, informazio-, trazabilitate- eta kontrol-mekanismo aurreratuak ezartzen ditu, modua emanen dutenak eskakizunak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, elkarreragingarritasun administratiboa hobetzeko eta inklusio-ibilbideen jarraipen eraginkorra bermatzeko.

Hori horrela, inklusio aktiborako politika ulertzen da politika publiko ebaluagarri gisa, zeina oinarrituta egonen baita adierazleetan, aldizkako berrikusketetan eta emaitzen neurketan, enplegagarritasunari, autonomia pertsonalari eta pobrezia-murrizketari dagokienez.

## (IX)

Esandakoagatik guztiagatik, foru-lege hau onesten da, xede hartuta Nafarroako diru-sarreraren bermerako sistema modernizatzea eta berrantolatzeari Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera egotearekin koherentzia, foru-prestazioaren inklusio aktiboko izaera sendotuz, sistema enplegura eta autonomiara bideratuz, eskubideak eta betebeharrak argituz, kontrol- eta jarraipen-mekanismoak sendotuz eta politika publikoa eraginkorra, ekitatiboa eta emaitzetara bideratua dela ziurtatuz.

## ATARIKO TITULUA

### Xedapen orokorrak

**1. artikulua.** Foru-legearen xedea eta helburua.

1. Foru-lege honen xedea da Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea aitortzea eta bermatzea, gizarte- eta lan-inklusioko prozesu egituratu eta pertsonalizatu baterako eskubide subjektibo gisa, autonomia pertsonalera, parte-hartzea sozialera eta, ahal denean, laneratzerara, bideratutako prozesu baterako, hain zuzen ere.

2. Horretarako, foru-legeak Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistema arautzen du, eskubide hori egikaritzea dakarten jarduketan, zerbitzuen eta laguntza profesionalen esparru publiko integratu gisa, zeina Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuaren inguruan antolatzen baita, eta, hala dagokionean, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren osagarri izanen den prestazio ekonomiko baten inguruan, hura inklusio-prozesurako laguntza-tresna gisa eratu.

3. Foru-lege honen xedea da pobrezia, zaurgarritasun eta gizarte-esklusioarekin lotutako egoerak prebenitzea eta murriztea, inklusio aktiboko prozesu eraginkorrak sustatuz, zeinek modua emanen baitiete pertsonari bizitza-proiektu autonomoa eta duina izateko.

## **2. artikulua.** Printzipio gidariak.

Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemak honako printzipio hauei jarraituko die:

### 1. Inklusio aktiboaren zentralitatea.

Inklusio aktiborako prozesua da eskubidearen ardatza, eta autonomia pertsonalera eta gizarteratze eta laneratzera bideratutako jarduketa publikoen multzoa biltzen du.

2. Integrala, koordinatua eta sistemen arteko esku-hartzean oinarritua.

Sistemaren jarduketak modu integralean gauzatu dira, eta gizarte-zerbitzuen, enplegu-zerbitzuen eta osasun-, hezkuntza- eta etxebizitza-arloko sistema publikoen eta behar diren gainerako sistemen artean koordinatuta, inklusio aktiborako prozesuan koherentzia, jarraitutasuna eta trazabilitatea bermatuz.

3. Autonomiara eta gaitasunen garapenera bideratua.

Gaitasun pertsonalak, norbanakoen autonomia eta parte-hartze sozial aktiboa sendotzera bideratuta egonen da sistema.

### 4. Enplegura bideratua lehentasunez.

Laneratze iraunkorra eta kalitatezkoa inklusio aktiborako prozesuaren lehentasunezko helburua da.

### 5. Erantzukidetasuna.

Administrazioak eta parte-hartzaileak erantzukizunak, konpromisoak eta betebeharrak partekatzen dituzte Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuaren esparruan, foru-lege honetan ezarritakoarekin bat.

### 6. Arreta pertsonalizatua eta egokitua.

Esku-hartzea banakakoa izanen da, eta pertsona bakoitzaren behar, ahalmen eta egoera pertsonaletara egokituko da ibilbide pertsonalizatuen bidez.

7. Gertutasuna, toki-esparrua eta esparru publiko eta sozialaren arteko lankidetzeta.

Sistema pertsonetikoko gertutasunaren printzipioa aintzat hartuta gauzatu da, eta aitortuz oso paper garrantzitsua dutela toki-entitateek eta inklusio aktiborako prozesuen diseinuan, garapenean eta gauzatzean gizarte-entitateekin lankidetzan aritzeak, foru-lege honetan aurreikusitako baldintzetan.

8. Ebaluazioa, jarraipena eta etengabeko hobekuntza.

Jarraipen, aldizkako ebaluazio eta etengabeko hobekuntzako mekanismoak ezarriko zaizkio sistemari, adierazle, ebidentzia eta emaitzetan oinarrituak.

9. Ekitatea, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

Eskubiderako eta sistemaren neurrietarako sarbidean, berdintasun-baldintzak bermatuko dira, eta benetako inklusioa ziurtatzeko behar diren arazoizko doikuntzak egingen dira.

10. Gastu publikoaren eraginkortasuna eta kontrola.

Sistema eguneratzean, baliabide publikoen erabilerean efizientziari buruzko irizpideei jarraituko zaie, eta kontrolatuko da betetzen direla ezarritako eskakizun eta betebeharrak.

## **3. artikulua.** Definizioak.

Foru-lege honen ondorioetarako, jarraian azaldu bezala ulertuko dira honako hauek:

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea: lege-osaerako eskubide subjektiboa, pertsonari bermatzen diena gizarteratze- eta laneratze-prozesu egituratu, profesionalizatu eta pertsonalizatu baterako sarbidea foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

2. Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistema: Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea egikaritzea xede duten eta erantzukizun publikoak diren jarduketa, prestazio, zerbitzu, tresna eta laguntzen multzo ordenatu, koordinatu eta koherentea.

3. Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesua (NIAP): tresna tekniko eta prozedurazkoa, zeinaren bidez pertsonaren egoera ebaluatzen baita, inklusio aktiborako ibilbide pertsonalizatua diseinatzen eta garatzen baita eta jarraipena eta akonpainamendua egiten baita.

4. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren prestazio ekonomiko osagarria: Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerarekiko osagarria eta subsidiarioa den prestazio ekonomikoa, Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea egikaritzearekin lotuta dagoena, eta Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuari laguntzeko tresna gisa eraturita dagoena, foru-lege honetan ezarritako baldintzen eta eskakizunen arabera.

5. Titularra: foru-lege honetan ezarritako eskakizunak betetzen dituelarik Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidearen titular den pertsona.

6. Parte-hartzailea: titular izaerarekin edo foru-lege honetan aurreikusitako beste batekin Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuan aktiboki parte hartzen duen pertsona.

7. Onuraduna: foru-osagarriaren titularraren bizikidetzta-unitateko kidea den pertsona.

**4. artikulua.** Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidearen izaera.

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubideak legez eraturitako eskubide subjektiboaren izaera du, eta foru-lege honetan eta berau garatzen duten arauetan aurreikusitako baldintzetan egikaritzen da.

2. Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidearen funtsezko edukia da gizarte- eta lan-inklusioko prozesu egituratu eta pertsonalizatu baterako sarbidea izatea, autonomia pertsonalera, parte-hartzea sozialera eta, ahal denean, laneratzera, bideratutako prozesu baterako, hain zuzen ere.

3. Eskubidea baliatzeko, Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemari parte hartu beharko da, Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuaren bidez, egoera pertsonaren ebaluazioarekin eta foru-lege honetan aurreikusitako tresnekin bat, eta sarbidea emanen da inklusio aktiborako prozesua gauzatzeko behar diren laguntza, zerbitzu eta neurriak.

4. Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea baliatzeak ekarriko du, baldin eta foru-lege honetan ezarritako eskakizunak betetzen badira, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarria jasotzea, zeina sortu baita inklusio aktiborako prozesuari laguntze tresna gisa, eta zeina prozesu horrek sorrarazitako baldintzen eta betebeharren mende baitago.

5. Eskubidearekin lotutako laguntza, zerbitzuak eta prestazioak jasotzen hasteko eta jarraitzeko, foru-lege honetan ezarritako eskakizunak, baldintzak eta betebeharrak bete beharko dira, erantzukidetasun, proportzionaltasun eta akonpainamendu profesionalaren printzipioei jarraituz.

6. Edonola ere, Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea aitortua, egikaritua eta, hala bada,

mugatua izatekotan, beti errespetatu beharko dira berdintasunari, diskriminaziorik ezari, erabaki administratiboak arrazoitzeari eta pertsonen esku-bideak bermatzeari dagozkion printzipioak, antolamendu juridikoan aurreikusitako baldintzetan.

7. Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuan parte hartzen ahalko da Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren (BGD) Foru Osagarriari lotuta egonda edo gabe, foru-lege honetan aurreikusitako egoeretan eta hor ezarritako baldintzei jarraituz. Prozesuan parte hartze hutsak ez du, bere horretan, prestazio ekonomikoak jasotzeko esku-bidea ematen.

**5. artikulua.** Aplikazio-eremua.

Foru-lege hau aplikagarri izanen zaie Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren eta foru-legean bertan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten pertsonari.

**6. artikulua.** Eskubidea baliatu ahal izateko eskakizunak.

1. Oro har, Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea baliatu ahal izateko, legez eta benetan gutxienez lau urtez Nafarroan bizi izana egiaztatu beharko da.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako eskakizuna ez zaie exijituko genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimei, gizakien salerosketaren edo esplotazioaren biktimei, nazioarteko babesaren eskatzaile edo aberrigabeak diren pertsonari eta terrorismoaren biktimei.

**7. artikulua.** Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea eskuratzea eta hura baliatzen hastea.

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidearen egikaritzea interesdunak eskatuta hasiko da. Horretarako, eskabide bat zuzendu beharko die gizarte-zerbitzu eskumendunei. Dena den, ofizioz ere hasten ahalko da, edo beste sistema publiko batzuetatik bideratuta, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

2. Eskubidea eskatzeak ekarriko du Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemari sartzea, dagokion espedientea irekitzea eta Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesua hastea foru-lege honetan aurreikusitako hasierako ebaluazioaren bidez.

3. Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea baliatu ahal izateko ez da beharrezkoa izanen aurrez prestazio ekonomikoak eskatuta eta onartuta izatea.

4. BGDren Foru Osagarria eskuratzeko, ordea, bai, foru-lege honetan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

5. Administrazioak bermatuko du eskubiderako sarbidea modu irisgarrian, ulergarrian eta koordinatuak egitea, bermatuz informazio egokia ematen zaiela interesdunei, eta alferrikako administrazio-zamarik gabe.

6. Pertsona bat eskubidea egikaritzen hasten denetik, horrek eskubidea izanen du honakoetarako, bere egoeraren eta balorazio profesionalaren arabera:

a) Hasierako ebaluazioa egin dadin ezarritako epeetan.

b) Erreferentziazko langile edo talde bat esle diezaioten.

c) Zaurgarritasuneko edo berehalako behar-eko egoerak artatzeko laguntza sozial, profesional eta komunitario egokiak jasotzeko.

d) Prestazio ekonomikoen aitopenen mende ez dauden akonpainamendu, orientazio, bideratze eta esku-hartze sozialeko neurriak aktiba daitezen.

## I. TITULUA

### Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistema

## I. KAPITULUA

### Xedapen orokorrak

**8. artikulua.** Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemaren xedea.

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistema esparru publiko antolatua da, zainen bidez bermatzen baitu Nafarroako Foru Komunitateak foru-lege honetan aitortutako Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidearen egikaritze eraginkorra.

**9. artikulua.** Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemaren osagaiak.

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistema honako egiturazko osagai hauetan antolatuta dago:

a) Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesua (NIAP), ebaluazio, esku-hartze, aktibazio eta akonpainamendu pertsonalizaturako tresna tekniko eta prozedura-tresna gisa.

b) Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarria, inklusio aktiborako prozesuei laguntzeko tresna gisa eratuta dagoena, foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

c) Gizarte-zerbitzuek, enplegu-zerbitzu publikoek eta gizarte- eta lan-inklusioarekin zerikusia duten gainerako sistema publikoek landutako zerbitzu, programa, jarduketa eta baliabide profesionalak.

2. Sistemaren osagaiek modu koordinatu eta integratuan jardunen dute, babes ekonomikoaren, esku-hartze sozialaren eta gizarte- eta lan-aktibazio-ko jarduketan arteko koherentzia bermatuz.

**10. artikulua.** Inklusio aktiboaren eta laguntza ekonomikoaren arteko artikulazioa.

1. Inklusio aktiboa da Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemaren ardatz nagusia, eta autonomia pertsonala eta gizarteratze eta laneratzea sustatzea xede duten jarduketa publikoak bideratzen ditu.

2. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarria ez da xede bat bere horretan; aldiz, Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea benetan egikaritzeko eta Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuan parte hartzeko laguntza-tresna da.

3. Prestazio ekonomikoa eskuratzea, jasotzen jarraitzea eta, hala badagokio, aldatzea, eskubidearen egikaritzearekin lotuta egonen da, eta beharrezkoa izanen da Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesutik sortutako baldintzak eta betebeharrak betetzea, foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

**11. artikulua.** Estatuko sistemarekiko erlazioa.

1. Estatuko diru-sarrerak bermatzeko sistemarekin koordinatuta, modu osagarrian eta hura ordeztu gabe jardunen du Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemak, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari dagokionez bereziki, zeina baita Estatu osoan pobrezari aurre egiteko babes ekonomiko oinarrizko maila komuna.

2. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera diru-sarreen gutxieneko bermerako prestazio estataltzat jotzen da, eta babes-lurzoru gisa jarduten du. Baina horrek ez du eragozten Nafarroako Foru Komunitateak eskumena izatea, bere foru-araubidea eta gizarte-laguntzaren arloan duen eskumen eskusiboa baliatuz –zeina aitortzen baita Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan–, bere maila osagarri bat ezartzeko, inklusio aktibora, autonomia pertsonalera eta laneratze eta gizarteratzerara bideratua.

3. Nafarroako Foru Komunitateak, 2022ko martxoaren 31ko eskualdatze-akordioaren bidez bere gain hartutako Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kudeaketa-araubidearekin bat, Nafarroako Inklusio Aktiborako sistemarekin integratuta gauzatuko ditu kudeaketa-eginkizun horiek, babes ekonomikoaren eta gizarteratze- eta laneratze-prozesuen arteko koherentzia bermatuz, eta horiek hiru hilabeteko epean ebazteko konpromisoa hartuta.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jardueraren helburua izanen da Estatuko Administrazio Orokorreko koordinazio eraginkorra, elkarreragingarritasun administratiboa eta informazio-trukea bermatzea, bai eta foru-erakundearen baitakoak ere, ez dadin gainjartzerik gertatu, eskubide-sarbidea errazteko eta inklusio aktiborako prozesuan jarraitutasuna, koherentzia eta trazabilitatea bermatze aldera.

## II. TITULUA

### Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesua (NIAP)

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

**12. artikulua.** Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuaren definizioa.

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesua (aurrerantzean, NIAP) da eskubidearen funtsezko edukia, zeina, era berean, Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemari integratuta baitago.

2. NIAP prozesu egituratua, integratua, jarraitua eta multidimentsionala da, esku-hartze profesional koordinatuan oinarritzen da, eta emaitza egiaztagarrietara bideratuta dago foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

**13. artikulua.** Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuko parte-hartzaileen eskubideak.

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuan parte-hartzaile diren pertsonak, haien parte-hartzea derrigorrezkoa edo borondatezkoa izan, honako eskubide hauek izanen dituzte:

a) Informazio garbi, ulergarri eta irisgarria jasotzea prozesutik sortutako eduki, helburu, fase, eskubide eta betebeharrei buruz.

b) Inklusio aktiborako ibilbide pertsonalizatu bat izatea, beren egoera pertsonal, sozial eta, hala badagokio, laboralera egokitua eta ebaluazio tekniko indibidualizatu batean oinarritua.

c) Akonpainamendu profesional eraginkor, jarraitu eta koherentea jasotzea prozesuan zehar.

d) Aktiboki parte hartzea beren ibilbidearen zehaztapenean eta berrikuspenean, ohar eta proposamen arrazoituak egiteko modua izanik.

e) Betiere arrazoiak emanda, esleitutako profila eta ibilbidearen helburuak berrikustea eskatzea bere egoeran aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean.

f) Entzunak izatea prozesuko parte-hartzean edo harekin lotutako laguntzetan eragin kaltegarriak izaten ahal dituzten erabakiak hartu aurretik.

g) Erreklamazio, berrikuspen eta tutoretza administratiboko mekanismoetara sarbidea izatea antolamendu juridikoan aurreikusitako baldintzetan.

2. Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemari inspirazio-osagai diren erantzukidetasunaren, proportzionaltasunaren eta emaitzetara bideratua izatearen printzipioekin bat egikaritutako dira eskubide horiek.

## II. KAPITULUA

### Sarbidea, ebaluazioa, faseak eta egitura profesionala

**14. artikulua.** Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesurako sarbidea.

1. NIAPerako sarbidea izanen dute honako hauek:

a) Derrigorrez, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarriaren titular diren pertsonak.

b) Beren borondatez, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren titular diren pertsonak.

c) Gizarte-zerbitzu eskumendunek zaugarri gisa ziurtatutako pertsonak, nahiz eta horiek prestazio ekonomikoaren titular ez izan, baldin eta parte hartzea erabakitzen badute beren borondatez.

2. Halaber, foru-osagarriaren titular den pertsonaren bizikidetzaren unitateko kide diren onuradunak ere sartzeko ahalko dira Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuan, baldin eta hala erabakitzen badute gizarte-zerbitzu eskumendunek.

**15. artikulua.** Hasierako ebaluazio teknikoak.

1. NIAPera sartzeko, hasierako ebaluazio tekniko bat egin behar da, ondorengo ondoko bi fase osagarri osatutakoak:

a) Batetik, ebaluazio multidimentsional bat, gizarte-laneko langile batek egina, zeinak barne hartuko baititu, gutxienez, osasunaren eta osasun mentalaren esparruak, familia- eta zaintza-egoera, etxebizitza eta bizigarritasuna, egoera ekonomikoa, oinarritzko gaitasunak eta gaitasun digitalak, parte-hartze soziala eta egoera juridiko-administratiboa.

b) Eta, bestetik, enplegarritasun-ebaluazio bat, enplegu-erloto profesionalak egina, eta xede izanen duena zehaztea lan-aktibaziorako zer ahalmen duen pertsonak.

2. Bi ebaluazio horietatik, “baterako hasierako ebaluazioaren dokumentua” sortuko da, zeina izanen baita inklusio-profilaren eta ibilbide pertsonalizatuaren diseinuaren oinarri.

3. NIAPen onartua izan eta gehienez ere hogeita hamar eguneko epean egin beharko da hasierako ebaluazioa, behar bezala justifikatutako arrazoiren bat dagoenean salbu.

**16. artikulua.** Inklusio-profila zehaztea.

1. Baterako hasierako ebaluazioaren dokumentu hori oinarri hartuta, honako profil hauetako bat esleituko zaio pertsona bakoitzari:

a) Profil soziolaborala, berehala lan-aktibazioko prozesu batean hasteko moduan dauden pertsonentzat.

b) Profil soziala, enplegarritasun lantzen hasi aurretik egonkortasun pertsonal edo sozialeko aurretiko prozesu bat behar duten pertsonentzat.

c) Profil mistoa edo trantsiziokoa, pixkanaka neurri sozialak eta soziolaboralak konbinatzen joaten ahal diren pertsonentzat.

2. Profila berrikusi egiten ahalko da pertsonaren egoera pertsonal, sozial edo laboralean aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean.

**17. artikulua.** Inklusio Aktiborako Ibilbide Pertsonalizatuaren (IAIP) faseak.

Honako fase hauei jarraikiz gauzatu da IAIP:

1. Diseinu teknikoa, erreferentziazko lantalde teknikoak eginga pertsona interesdunaren, kudeatzailearen eta, hala badagokio, unitate sektorialen parte-hartzearekin.

2. Formalizatzea, inklusio aktiboko konpromisoa izenpetuz.

3. Exekuzioa, inklusio aktiboko kudeatzaileak koordinatua.

4. Jarraipena eta berrikuspena, kudeatzailearen kontrol arruntaren eta erreferentziazko lantalde teknikoaren berrikuspen teknikoaren bidez.

5. Amaiera eta itxiera teknikoa, dagokion emaitza-balorazioarekin.

**18. artikulua.** Erreferentziazko lantalde teknikoa.

1. Erreferentziazko lantalde teknikoa osatuko dute, gutxienez, gizarte-laneko langile batek eta enplegu-arloko langile batek, eta NIAPren agintaritza tekniko gisa jardunen du.

2. Erreferentziazko lantalde teknikoari dagozkio honako hauek:

a) Ebaluazio multidimentsionala eta enplegarritasun-balorazioa egitea.

b) Inklusio-profila esleitzea eta berrikustea.

c) Inklusio aktiborako ibilbide pertsonalizatua teknikoki zehaztea.

d) Prozesuarekin lotutako erabaki teknikoak hartzea.

e) Berrikuspen teknikoak eta birprofilatzeak egitea.

f) Inklusio aktiboko kudeatzailearen jarduera teknikoki gainbegiratzea.

**19. artikulua.** Inklusio aktiboko unitate sektorialak.

1. Inklusio aktiboko unitate sektorialak egonen dira osasun, osasun mental, hezkuntza eta etxebizitzako arloetan, NIAPi laguntzeko eginkizun espezializatuarekin.

2. Unitate sektorialeak beren eskumen-esparruan soil-soilik esku hartuko dute, eta erreferentziazko lantalde teknikoak edo inklusio aktiboko kudeatzaileak eskatuta betiere.

3. Ez dute ebaluazio teknikoko, erabakitze administratiboko eta prozesuaren kudeaketa operatiboko eginkizunik beteko.

**20. artikulua.** Inklusio aktiboko kudeatzailea.

1. NIAPen sartzen den pertsona bakoitzak inklusio aktiboko kudeatzaile bat izanen du erreferentziazko langile gisa, ibilbidearen akonpainamendu, koordinazio praktiko eta jarraipen arrunterako.

2. Administrazioa, toki-entitateetako edo hirugarren sektoreko entitate akreditatuetako langileek egiten ahalko betetzen ahalko dute eginkizun hori.

3. Kudeatzaileak ez du ebaluazio teknikoko edo erabakitze administratiboko eginkizunik beteko.

4. Kudeatzaileari dagozkio honako hauek:

1. Parte-hartzailearekiko solaskide nagusia izatea.

2. IAIPren koordinazio praktikoak.

3. Neurrien aktibazioa eta jarraipen arrunta.

4. Intzidentziak hautematea eta erreferentziazko lantalde teknikoari jakinaraztea.

### III. KAPITULUA

#### Inklusio Aktiborako Ibilbide Pertsonalizatua

**21. artikulua.** Ibilbidearen izaera eta formalizatzea.

1. Inklusio Aktiborako Ibilbide Pertsonalizatua tresna tekniko indibidualizatua da, zeinaren bidez antolatzen baitira inklusio aktiborako prozesurako beharrezkoak diren helburuak, jarduketak, laguntzak eta konpromisoak.

2. Inklusio aktiborako kontratu baten bidez formalizatuko da ibilbidea, eta parte-hartzaileak eta Administrazioak sinatuko dute kontratua.

**22. artikulua.** Ibilbidearen gutxieneko edukia.

Ibilbideak honako hauek jasoko ditu gutxienez:

1. Esleitutako inklusio-profila.
2. Lortzea espero den helburu espezifikoak eta emaitzak.
3. Aurreikusitako neurriak eta horien denbora-programazioa.
4. Parte hartzeko beharrak, eta, hala badagokio, egiaztatutako bilaketa aktibokoak.
5. Benetako parte-hartzea bermatzeko behar diren laguntzak.
6. Jarraipen- berrikuspen- eta egokitzapen-mekanismoak.

**23. artikulua.** Aktibazioaren intentsitatea.

1. Profil soziolaboraetan eta mistoetan, IAIPk barne hartu beharko du aktibazio-, prestakuntza- edo enplegarritasun-jardueretarako gutxieneko parte-hartze bat, oro har, asteko hamabost egun bestekoa.

2. Hogeita bost urtetik beherako pertsonen kasuan, ibilbideak aurreikusi beharko du gaikuntza-prestakuntzan edo lanean hastea gehienez ere prozesuan sartu eta hiru hilabeteko epean. Eta Administrazio Publikoaren tutoretzapekoak izan diren edo emantzipazio behartuko edo familia-hausturako egoeretan dauden gazteen kasuan bereziki.

3. 65 urtetik gorako pertsonen kasuan, autonomia pertsonala, bizi-baldintzak, zerbitzuetarako sarbidea eta komunitate-inklusioa hobetzera bideratuko da prozesua nagusiki.

4. Edonola ere, pertsonaren profilera, gaitasunetara eta egoeretara egokituko dira Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuaren intentsitatea, helburuak eta edukia, balorazio profesionalaren arabera.

**24. artikulua.** Enplegu-bilaketa aktiboa eta eskaintza egokia

1. Enplegu-bilaketa aktibo egiaztatua izanen da orientazio-ekintzak, esku-hartzeak, hautagaitzak, elkarrizketak, prestakuntza edo praktikak egitea aldizka, erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan.

2. Eskaintza egokitzen joko da pertsonaren gaitasun- eta lanbide-profilera egokitzen den hura, bere baldintza pertsonalak errespetatzen dituen eta aplikatzekoa den lan-araudia betetzen duena.

**25. artikulua.** Neurri-katalogoa.

1. Nafarroako Gobernuak neurri-katalogo bat onetsiko du urtero, zeinak esparru hauetan antolatuko baititu jarduerak:

- a) Osasuna eta osasun mentala.
- b) Hezkuntza eta ahalduntzea.
- c) Etxebizitza.
- d) Gizarteratzea.

2. Orobat, Nafarroako Gobernuak enplegu- eta gaitze-politika aktiboen katalogo bat onetsiko du urtero, zeinak barne hartuko baititu, besteak beste, orientazio, prestakuntza, birkualifikazio, gaitasun-egiaztapen, praktika, prospekzio eta laneratzearekin lotutako jarduerak.

3. Bermatze aldera neurriak lan-merkatuaren beharretara egokitzen direla, Nafarroako Gobernuak lanpostu jabegabeen eta enplegu-beharren prospekzio-analisi bat egingen du urtero, eragile ekonomiko eta sozialekin elkarlanean. Prospekzio horren emaitzak kontuan hartuko dira neurri-katalogoak zehaztean eta eguneratzean eta inklusio aktiborako ibilbide pertsonalizatuak diseinatzean.

**26. artikulua.** Irisgarritasuna.

1. IAIPk irisgarritasun unibertsala eta behar diren arrazoizko egokitzapenak bermatuko ditu.

2. Zilegi izanen da kasu horietan betebeharrak egokitzea, baina eutsi egingen zaie inklusio aktiborako helburuei.

**27. artikulua.** Jarraipena eta berrikusketa.

1. Aldizkakotasun hauekin egingen da ibilbidearen jarraipena:

- a) Hamabost egunean behin, profil soziolaboraleko edo mistoko ibilbideetan.
- b) Hilean behin, profil sozialeko ibilbideetan.

2. Ibilbidea berrikusia izanen da mugari garrantzitsuak lortzen direnean edo betetzen ez direnean, pertsonaren egoeran aldaketa esanguratsuak gertatzen direnean edo kudeatzaileak hala proposatzen duenean behar bezala arrazoituta; betiere, erreferentziazko lantalde teknikoaren onepenarekin.

**28. artikulua.** Ibilbidearen amaiera eta itxiera.

1. Arrazoi hauengatik amaituko da ibilbidea:

a) Ezarritako helburuak bete direlako.

b) Pertsona modu iraunkorrean laneratu delako edo haren autonomia pertsonala behar beste hobetu delako.

c) Bat-batean gertatutako aldaketa bat dela-eta ibilbidearekin jarraitzea beharrezkoa ez delako.

d) Erreferentziazko lantalde teknikoak hala erabaki eta arrazoiu duelako, interesdunari entzun ondoren.

e) Pertsonak berariaz uko egiten diolako, parte-hartzea norbere borondatezkoa denean.

2. Ibilbidea ixteak ekarriko du emaitzen amaierako txosten bat ematea, eta, hala dagokionean, jarraitzeko edo jarraipen arina egiteko neurriak ezartzea, xede izanen dutenak lortutako aurrerapenak finkatzea.

### III. TITULUA

#### BGDren Foru Osagarria

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

**29. artikulua.** Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarriaren xedea.

1. Titulu honen xedea da Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarria arautzea, Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemaren parte den prestazio ekonomikoa den heinean.

2. Foru Osagarria izaera autonomikoko prestazio ekonomiko gisa eratzen da, zeinaren xedea baita Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerak ematen duen babes ekonomikoa osatzea hala dagokionean, Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidearen egikaritze eraginkorra ahalbidetze eta sendotze aldera.

3. Foru Osagarria ez da prestazio ekonomiko autonomia, ez eta Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemarekiko independentea ere; aitzitik, foru-lege honen atariko tituluaren araututako eskubidearen mendeko tresna da.

4. Foru Osagarria eskuratzeko, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera aitortuta izan behar da aurrez, eta Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea egikaritu behar da, foru-lege honetan ezarritako eskakizun, baldintza eta salbuespenen arabera.

**30. artikulua.** Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarria eskatzea eta aitortzea.

1. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera eskatzearekin batera eskatzen ahalko da Foru Osagarria, edo Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea eskuratzeko unean.

2. Osagarriaren eskaera Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren eskaera baino lehen edo horren batera egiten denean, Estatu-mailako prestazio hori aitortu beharko da lehenbizi osagarria onartu ahal izateko.

3. Foru Osagarria aitortzeko prozedura Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerarenarekin eta Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuaren hasierarekin koordinatuta izapidetuko da, izapideak eta egiaztapenak bikoiztea ekidite aldera.

4. Foru Osagarriaren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da, baina horrek ez du eragozten Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera ebazten duen egintza berean aitortzea baldin eta foru-lege honetan ezarritako eskakizunak betetzen badira.

**31. artikulua.** Foru Osagarriaren izaera juridikoa.

Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarria aldizkako prestazio ekonomikoa da, pertsonala, osagarria eta subsidiarioa.

1. Hura aitortzeko eta mantentzeko, eskakizun ekonomikoak bete beharko dira, eta Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuan parte hartu beharko da, foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

2. Foru Osagarria Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemaren integratuta dago funtzionalki, eta diru-sarreraren bermerako Estratuko sistemarekin koordinatuta antolatzen da.

#### II. KAPITULUA

##### Titularrak eta bizikidetzaren unitatea

**32. artikulua.** Foru Osagarriaren titularrak.

1. Oro har, Foru Osagarriaren titular izaten ahalko dira honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak:

a) Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren titular izatea.

b) Nafarroako Inklusio Aktiborako Eskubidea egikaritzea foru-lege honetan ezarritakoaren arabera.

c) Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesua gauzatzea.

2. Salbuespen gisa, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarria eskuratzen ahalko dute honako pertsona hauek, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera eskuratzeko eskakizun orokorrak betetzen ez badituzte ere:

a) Administrazio Publikoaren tutoretzapean egon diren gazteak, helduarora igartzeko prozesuetan zehar; betiere, foru-lege honetan aurreikusitako sarbide-eskakizunak betetzen badituzte.

b) Pentsio-sistema publikora benetako edo behar besteko sarbiderik ez duten pertsona nagusiak, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan; betiere, foru-lege honetan aurreikusitako sarbide-eskakizunak betetzen badituzte.

3. Foru Osagarriaren titular bakar bat aitortzen ahalko da bizikidetzaren unitate bakoitzeko.

### **33. artikulua.** Foru Osagarriaren onuradunak.

1. Foru Osagarriaren onuradunaren izaera izanen dute titularraren bizikidetzaren unitatekoak diren pertsonak, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren araudian ezarritako definizioari jarraituz.

2. Onuradunak, hala badagokie eta beren profilaren eta egoeren arabera, Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuaren helburuen eta jarduketan mende geldituko dira, nahiz eta titularrak soilik izan den ordezkaria Administrazioaren aurrean.

3. Onuradun izateak, bere horretan, ez du Foru Osagarriaren titularraren izaerarik ematen, ez eta hura jasotzeko eskubide autonomorik ere.

### **34. artikulua.** Bizikidetzaren unitatea.

1. Foru Osagarria aitortzeko eta mantentzearen ondorioetarako, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren araudian definituta dagoena izan da bizikidetzaren unitatea.

2. Bizikidetzaren unitatea finkatzeko, aldatzeko edo azkentzeko, Estatuko araudian ezarritako irizpide, arau eta ondorio berei jarraituko zaie, hor jasotako salbuespenak barne.

### **35. artikulua.** Titulartasun-eskakizunei eustea.

1. Foru Osagarria aitortua izateko bete beharreko eskakizunak bete beharko dira hura jasotzen den denboraldi osoan zehar.

2. Titularrak derrigortuta daude Administrazioari jakinaraztera beren egoera pertsonal, familiar edo ekonomikoan gertatzen den aldaketa oro, baldin eta aldaketak eragina izaten ahal badu eskubidea mantentzean.

3. Eskakizunak betetzeari utziz gero, Foru Osagarria eten edo azkendu eginen da, foru-lege honetan ezarritakoarekin bat.

## **III. KAPITULUA**

### **Foru Osagarriaren eskakizun ekonomikoak**

#### **36. artikulua.** Behar ekonomikoko egoera.

1. Foru Osagarriarako sarbidea izanen dute foru-lege honen arabera ezarritako diru-sarreraren maila bermatura iristen ez den egoera ekonomikoan dauden pertsonak eta bizikidetzaren unitateak.

2. Behar ekonomikoko egoera finkatuko da bizikidetzaren unitatearen guztizko ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta, zeina osatzen baitute konputagarriak diren diru-sarrerak eta ondareak, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren araudian ezarritakoarekin bat.

3. Foru Osagarria prestazio osagarria izanen da, eta, hala badagokio, benetan erabilgarri dauden diru-sarreraren eta dagokion diru-sarreraren maila bermatuaren arteko aldea estaliko da harekin.

**37. artikulua.** Diru-sarrera konputagarriak eta ez-konputagarriak.

1. Foru Osagarriaren ondorioetarako, diru-sarrera konputagarritzat eta ez-konputagarritzat joko dira Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren araudian ezarritakoak.

2. Espezialitate teknikoak ezartzen ahalko dira erregelamendu bidez Foru Osagarria Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemaren sartzearen ondorioz; betiere, zenbaketarako irizpide orokorra aldatzen ez bada eta Estatuko sistemarekin bikoizketarik gertatzen ez bada.

#### **38. artikulua.** Ondarea.

1. Bizikidetzaren unitatearen ondarea baloratzeko, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren araudian ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

2. Behar ekonomikoko egoera eta Foru Osagarriarako sarbidea finkatzeko soilik kontatuko da ondarea, eta balorazio hori ezin izanen da erabili foru-lege honetan ezarritako xedeez bestelako xedeetarako.

#### IV. KAPITULUA

##### Foru Osagarriaren zenbatekoa

**39. artikulua.** Diru-sarreraren maila bermatua.

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemak diru-sarreraren maila jakin bat bermatuko die titulareei eta bizikidetzaren unitateei, zeina lortuko baita batuz Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren eta, hala badagokio, Foru Osagarria.

2. Diru-sarreraren maila bermatua bizikidetzaren unitatearen osaeraren arabera finkatuko da, Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemaren beraren erreferentziazko zenbateko-egitura bati jarraituz.

3. Foru Osagarriaren erreferentziazko zenbatekoak urtero ezarriko eta eguneratuko dira eskubide sozialaren alorreko eskumenak dituen departamentuaren foru-agindu baten bidez; edonola ere, ezin izanen da ezarri foru-lege honek indarra hartzen duenean indarrean dagoen babes ekonomikoaren maila baino baxuagorik.

4. Diru-sarreraren maila bermatua ez da prestazio ekonomiko autonomo bat, Foru Osagarria finkatzeko erreferentziazko atalasea baizik.

**40. artikulua.** Foru Osagarriaren zenbatekoa zehaztea.

1. Foru Osagarriaren zenbatekoa finkatuko da xede izanik bizikidetzaren unitateak erabilgarri dituen diru-sarrerak osatzea, hala badagokio, foru-lege honetan ezarritakoaren arabera hari dagokion diru-sarreraren maila bermatuta irits daitezkeen horiek.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, bizikidetzaren unitatearen diru-sarrera gisa kontatuko dira Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera gisa aitortuta dituenak, bai eta Estatuko prestazio horren araudiaren arabera konputagarritzat jotzen diren gainerako diru-sarrerak ere.

3. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren eta Foru Osagarriaren batura ez da inoiz izanen bizikidetzaren unitateari aplikagarri zaion diru-sarreraren maila bermatua baino handiagoa.

4. Foru Osagarria prestazio aldagarri gisa eratu da, halako moldez non haren zenbatekoa aldatu egiten ahalko da bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomiko, pertsonal edo familiarrean aldaketak gertatzen badira eta aldaketa horiek diru-sarreraren maila bermatua edo diru-sarrera konputagarrietan eragiten badute.

5. Administrazioak ofizioski aztertzen ahalko du bizikidetzaren unitatearen ahalmen ekonomiko, baldin eta jakiten badu Foru Osagarriaren zenbatekoan eragiten ahal duten aldaketa garrantzitsuak gertatu direla. Ahal bada, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren berrikuspenekin koordinatuta egiten da ofizioski berrikuspen hori.

**41. artikulua.** Lanetik lortutako diru-sarreretik bateragarritasuna

1. Foru Osagarria bateragarria izanen da besteren kontura edo norbere kontura egindako lanetik lortutako diru-sarrerekin Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren araudian eta foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

2. Lan-aktibazioa eta pixkanaka laneratze hastea sustatzeko, zilegi izanen da lanetik lortutako diru-sarreraren zati bat ez kontatzea Foru Osagarriaren zenbatekoa kalkulatzeari dagokionez, erregelamendu bidez ezarriko diren irizpide eta mugekin bat.

3. Enplegurako neurri pizgarriak aldi baterakoak eta geroz eta txikiagoak izanen dira, eta autonomia ekonomikoa lortzen joatea izanen dute xede; edonola ere, prozesu horretan zehar gutxieneko babes-mailari eutsiko zaio.

**42. artikulua.** Zenbatekoa berrikustea eta aldatzea.

1. Foru Osagarriaren zenbatekoa berrikusten ahalko da aldaketak gertatzen direnean bizikidetzaren unitatearen osaeran, haren kideen egoera ekonomikoan edo diru-sarreraren maila bermatuta aplikagarrian.

2. Titularrak derrigortuta egonen dira Foru Osagarriaren zenbatekoa aldatzea eragiten ahal duen edozein aldaketa esanguratsuren berri ematera, foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

3. Zenbatekoa berrikustea ekartzen ahal du, dagokionaren arabera, Foru Osagarria handitzea, txikitzea edo etetea; betiere, proportzionaltasun, arrazoitze eta segurtasun juridikoko printzipioei jarraituz.

**43. artikulua.** Erreferentziazko zenbatekoak eguneratzea.

1. Foru Osagarriaren eta diru-sarreraren maila bermatuen erreferentziazko zenbatekoak urtero eguneratuko dira gizarte-eskubideen alorreko eskumenak dituen departamentuaren foru-agindu bidez.

2. Eguneratzeak kontuan hartuko du adierazle ekonomiko eta sozialen bilakaera, bizitza-kostuarena bereziki, eta Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemak bermatutako babes ekonomikoa behar bestekoa izatea izanen da xede.

3. Zenbateko eguneratuak automatikoki aplikatuko dira indarreko prestazioetan; hau da, titularrek ez dute berariazko eskabiderik egin beharrik izanen.

#### **44. artikulua.** Aitortzaren ondorio ekonomikoak.

1. Foru Osagarria aitortzeak hori onartzen den egunetik bertatik sortuko ditu ondorio ekonomikoak.

2. Foru Osagarria Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara aitortzeko egintza berean aitortzen bada, horien ondorio ekonomikoak aldi berean gertatzen ahalko dira, babes ekonomiko integratu eta egokia emate aldera.

#### **45. artikulua.** Foru Osagarriaren iraupena.

1. Foru Osagarria onartuta egonen da hura ematea eragin zuten baldintzek jarraitzen duten bitartean eta Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesua gauzatzen jarraitzen den bitartean, foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

2. Foru Osagarria jasotzeko eskubidea ez da iraupen jakin batekin lotuta egonen, baina aldizkako berrikuspenak eginen dira titulu honetan xedatutakoari jarraituz.

3. Edonola ere, beharrezkoa izanen da honako alderdi hauek betetzea Foru Osagarria jasotzen jarraitzeko:

a) Ezarritako eskakizun ekonomikoak betetzea.

b) Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuan parte hartzea, titularraren profilari aplikatzekoak zaizkion baldintzetan.

c) Legezko eta benetako bizilekua Nafarroako Foru Komunitatean izatea.

### **V. KAPITULUA**

#### **Onuradunen eskubide eta betebeharrak**

#### **46. artikulua.** Onuradunen eskubideak.

1. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarriaren titularrek eta onuradunek honako eskubide hauek izanen dituzte:

a) Foru Osagarria jasotzea foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

b) Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuan (NIAP) parte hartzea.

c) Arreta pertsonalizatua jasotzea, beren ibilbidearen lanketaren eta jarraipenaren bidez.

d) Beren eskubideei, betebeharrei eta beren ibilbidearen edukiei buruzko informazioa jasotzea.

e) Beren enplegarritasuna eta gizarteratzea hobetzeko laguntza teknikoa eta profesionala jasotzea.

2. Eskubide horien egikaritzea Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemaren esparruan eginen da, eta foru-lege honetan ezarritako printzipioei jarraituz.

#### **47. artikulua.** Betebehar orokorrak.

1. Titularrek eta onuradunek betebehar hauek izanen dituzte:

a) BGDren Foru Osagarria jasotzeko eskubidea aitortua izateko eta horri eusteko ezarritako eskakizunak betetzea.

b) Beren egoera pertsonal, familiar edo ekonomikoak gertatzen den aldaketa ororen berri ematea.

c) Administrazioaren aurrean agertzea hala eskatzen zaienean.

d) Eskakizunak egiaztatzeko behar den informazioa ematea.

2. Beren kargura adingabeak dituzten titularren betebeharrak:

a) Beren kargura adingabeak dituzten bizikidetzateetan, bermatu beharko da horiek eskolatuta daudela hezkuntza-sistemaren derrigorrezko etapetan, eta modu erregularrean joaten direla ikastetxera.

b) Betebehar hori behin eta berriro ez betetzeak BGDren Foru Osagarria jasotzeko eskubidea etetea edo azkentzea ekarriko du, foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

#### **48. artikulua.** Inklusio aktiboko betebeharrak.

1. Titularrek aktiboki parte hartu beharko dute Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuan (NIAP), foru-lege honetan ezarritako baldintzetan.

2. Bereziki, betebehar hauek izanen dituzte:

a) Inklusio Aktiborako Ibilbide Pertsonalizatua izenpetzea.

b) Ibilbidean ezarritako konpromisoak, jarduketak eta helburuak betetzea.

c) Modu eraginkorrean parte hartzea gizarte-eta lan-arloko esku-hartzeko neurrietan.

3. Ibilbidearen betetze-mailaren jarraipena eta aldizkako ebaluazioak eginen dira.

**49. artikulua.** Lan-aktibazioko betebeharrak.

1. Lan-adinean dauden pertsonen betebeharrak hauek izanen dituzte:

- a) Lan-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
- b) Lan-bilaketa aktiboa egitea.
- c) Prestakuntza-, orientazio- eta laneratzeko ekintzetan parte hartzea.
- d) Lan-eskaintza egokiak onartzea.

2. Arrazoirik eman gabe aktibazio-ekintzetan parte hartzeari uko eginez gero edo eskaintza egokiak onartu ezean, BGDren Foru Osagarria eten edo azkendu egingen da foru-lege honetan aurreikusitakoarekin bat.

**VI. KAPITULUA****Ikuskapena eta zehapen-araubidea****50. artikulua.** Foru Osagarriaren ikuskapena.

1. Administrazioak Foru Osagarriaren aldirako berrikuspenak egingen ditu, hura aitortzea eragin zuten eskakizunak artean betetzen direla eta haren zenbatekoa egokia dela egiaztatze aldera.

2. Berrikuspenak egiten ahalko dira, bereziki, honako hauek aldaketak gertatzen direnean:

- a) Bizikidetzaren unitatearen egoera ekonomikoa.
- b) Bizikidetzaren unitatearen osaera.
- c) Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuan parte hartzea dakarten baldintzak.

3. Berrikuspenak egitean, betiere, proportzionaltasun, arrazoiztasun eta segurtasun juridikoaren printzipioei jarraituko zaie, eta interesdunari entzunaldia ematea bermatuko da.

**51. artikulua.** Arau-hausteen kontzeptua eta sailkapena.

1. Arau-hauste izanen da foru-lege honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea dakarren ekintza eta ez-egite oro.

2. Arau-haustea arinak, astunak edo oso astunak izaten ahal dira.

**52. artikulua.** Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arintzat joko dira honako hauek:

1. Betebehar formal edo administratiboen ez-betetze puntualak.
2. Egoera pertsonal, familiar edo ekonomikoan gertatutako aldaketa ez garrantzitsuen berri ez ematea.

**53. artikulua.** Arau-hauste astunak.

Arau-hauste astuntzat joko dira honako hauek:

1. Inklusio Aktiborako Ibilbide Pertsonalizatutik (IAIP) sortutako betebeharrak ez betetzea modu arrazoigabearen.
2. Administrazioak eskatutakoan ez agertzea.
3. Kontrol-jardueretan ez laguntzea.
4. Arau-hauste arinak egitea behin eta berriz.

**54. artikulua.** Arau-hauste oso astunak.

Arau-hauste oso astuntzat joko dira honako hauek:

1. Lan-eskaintza bati uko egitea modu arrazoigabearen.
2. Inklusio Aktiborako Ibilbide Pertsonalizatua (IAIP) behin eta berriz ez betetzea.
3. Prestazio bidegabeki eskuratzea edo mantentzea informazioa ezkatutuz edo faltsutuz edo iruzur eginez.

**55. artikulua.** Arau-hausteen ondorioak.

1. Arau-hauste arinek ohartarazpena ekarriko dute.

2. Arau-hauste astunek Foro Osagarria jasotzeko eskubidea hilabete batetik hirura bitarte etetea ekarriko dute.

3. Arau-hauste oso astunek Foro Osagarria jasotzeko eskubidea azkentzea ekarriko dute.

4. BGDren Foru Osagarria jasotzeko eskubidea aldi baterako edo modu iraunkorrean etetea dakarten arau-hausteei ekartzen ahalko dute bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko beharra.

**IV. TITULUA****Sistemaren gobernantza, koordinazioa eta ebaluazioa****I. KAPITULUA****Gobernantza eta koordinazioa****56. artikulua.** Sistemaren gobernantza.

1. Diru-sarrerak bermatzeko eta inklusio aktiborako Nafarroako sistema gobernantza integratuko eredu bati jarraituko da, eta zerikusia duten sistema publikoen arteko koordinazioa izanen da xede.

2. Bereziki, honako hauen arteko koordinazioa bermatuko da:

- a) Gizarte-zerbitzuak.

b) Enplegu-zerbitzu publikoak.

c) Osasun-, hezkuntza- eta etxebizitza-sistemak.

3. Sistema horien baterako jarduketaren xedea izanen da emaitzak lortzea inklusio sozialari eta soziolaboralari dagokionez.

**57. artikulua.** Administrazioen arteko koordinazioa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak toki-entitateekin eta beste administrazio publiko batzuekin koordinatzeko mekanismoak sustatuko ditu, sistemaren koherentzia bermatze aldera.

2. Ibilbideei dagokienez, informazio-trukerako, jarraipen partekatua egiteko eta kudeaketa koordinatzeko tresnak ezarriko dira.

## II. KAPITULUA

### Sistemaren ebaluazioa, emaitzak eta hobekuntza

**58. artikulua.** Sistemaren ebaluazioa.

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Sistemari ebaluazio jarraitua eginen zaio, eraginkortasuna eta efizientzia neurtze aldera.

2. Honakoetara zuzendutako da ebaluazioa bereziki:

a) Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren murrizketa.

b) Autonomia pertsonalaren hobekuntza.

c) Parte-hartzaileen laneratzea.

**59. artikulua.** Adierazleak eta emaitzak.

1. Erregelamendu bidez ezarriko dira adierazleak, honako hauek neurtzeko modua emanen dutenak:

a) IAIPen betetze-maila.

b) Jarduketetako parte-hartze eraginkorra.

c) Laneratzea eta denboran zehar lanean jarraitzea.

2. Ateratako emaitzak sistemaren etengabeko hobekuntzarako erabiliko dira.

**60. artikulua.** Kudeaketaren eta erantzukizunaren ebaluazioa.

1. Administrazioak ebaluatuko du sistemaren kudeaketan parte hartzen duten organo, unitate eta langileen jarduna.

2. Ebaluazio horretan, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Inklusio-helburuen betetze-maila.

b) Esku-hartzearen kalitatea.

c) Laneratzeari eta autonomia pertsonalari dagokienez lortutako emaitzak.

3. Jarduna gainbegiratu, ebaluatu eta hobetzeko mekanismoak ezartzen ahalko dira erregelamendu bidez.

## III. KAPITULUA

### Enpresekiko elkarlana eta laneratze-konpromisoa

**61. artikulua.** Enpresa-sarearekiko elkarlana.

1. Nafarroako Gobernuak enpresa, gizarte-entitate eta bestelako eragile ekonomikoekiko elkarlana sustatuko du sisteman parte hartzen duten pertsonak laneratzea sustatzeko.

2. Horretarako, elkarlan-hitzarmenak ezartzen ahalko dira, zeinek honakoetan lagunduko duten:

a) Lan-aukerak identifikatzen.

b) Praktikak eta lan-esperientziak gauzatzeko.

c) Inklusio aktiboko prozesuan dauden pertsonak kontratatzen.

**62. artikulua.** Laneratze-konpromisoak.

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako hitzarmenen esparruan, laneratze-konpromisoak ezartzen ahalko dira, xede izanen dutenak parte-hartzaileen laneratzeari modu ematea.

2. Honako hauek jaso ahalko dira laneratze-konpromisoetan:

a) Lanpostuak erreserbatzea.

b) Parte-hartzaileak zuzenean kontratatzea.

c) Kontratazio-konpromisoa dakarten prestakuntza-programetan parte hartzea.

3. Hala dagokionean, konpromiso horiek IAIPetan jasoko dira, eta lehentasuna emanen zaio laneratze eraginkor eta iraunkorrari.

**63. artikulua.** Kontrataziorako pizgarriak.

1. Laneratze-programetan parte hartzen duten enpresei eta entitateei zuzendutako pizgarriak ezartzen ahalko ditu Nafarroako Gobernuak.

2. Laneratze eraginkorreko helburuak betetzerekin lotzen ahalko dira pizgarri horiek.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerarekiko koordinazioa.

Foru-lege honetan araututako Foru Osagarria Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerarekin koordinatuta eta haren osagarri gisa eratuko da, Estatuko legediarekin eta Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartutako kudeaketa-araubidearekin bat.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Informazio-sistemak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak informazio-sistema integratuak sortuko ditu, honakoetarako modua emanen dutenak:

1. Ibilbideen jarraipen indibidualizatua.
2. Jarduketan trazabilitatea.
3. Sistemaren ebaluazioa, datuetan oinarritua.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Entitateekiko elkarlana.

Administrazioak hirugarren sektoreko entitateekin, toki-entitateekin eta eragile sozialekin elkarlanean aritzeko formulak ezartzen ahalko ditu Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesua garatzeko.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kudeaketak ebazpenepeak hobetzea.

Nafarroako Foru Komunitateak, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kudeaketa-araubidearen esparruan, zeina 2022ko martxoaren 31ko eskualdatze-akordioaren bidez hartu baitzuen bere gain, administrazio onaren printzipioari jarraituz gauzatuko du bere jardun administratiboa, eta behar diren neurriak hartuko ditu prestazio hori izapidetzeko eta ebazteko denborak modu eraginkorrean murrizteko.

Ondorio horietarako, hiru hilabeteko epea ezartzen da jardun administratiborako erreferentzia estandar gisa, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera arautzen duen Estatuko araudian ezarritako bermeen eta mugen kaltetan izan gabe.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengo xedapen iragankorra.** Egungo onuradunen araubide iragankorra.

1. Egungo errenta bermatuaren onuradunek prestazioa jasotzen jarraituko dute foru-lege honek indarra hartzen duen unean indarrean dauden baldintzetan.

2. Foru-legeak indarra hartu eta hamabi hilabeteko gehieneko epean, pertsona horiek foru-lege

honetan araututako sistema berrian sartu beharko dira pixkanaka.

3. Sistemaren sartzek honako hau ekarriko du:

- a) Foru-lege honetan aurreikusitako hasierako ebaluazioa egitea.
- b) Profila esleitzea.
- c) Inklusio Aktiborako Ibilbide Pertsonalizatua eratzea.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Foru Osagarria egokitzea.

1. Errenta bermatuaren onuradun diren pertsonak Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren Foru Osagarriaren sistemaren sartuko dira foru-lege honetan ezarritako irizpideen arabera.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira egokitzapen-prozedurak, babes ekonomikoaren jarraitutasuna bermatuz.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuaren ezarpen progresiboa.

1. Nafarroako Inklusio Aktiborako Prozesuaren hedapena progresiboki egiten da indarrean jarri eta hurrengo hamabi hilabeteetan.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira honako hauek:

- a) Ezarpen-epeak.
- b) Lehentasunezko kolektiboak.
- c) Hura garatzeko behar diren baliabideak.

**Laugarren xedapen iragankorra.** Antolaketa-egokitzapena.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu zerbitzu, egitura eta giza baliabideak eredu berrira egokitzeko.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

1. Indarrik gabe geratzen da Gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea, bai eta foru-lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak ere.

2. Orobat, indarrik gabe geratzen dira foru-lege hori gauzatzeko emandako garapen-arauak foru-lege honetan xedatutakoarekin bateraezinak diren alderdi guztietan.

### **AMAIERAKO XEDAPENAK**

**Azken xedapenetako lehenengoa.** Erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru-lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Foru-legearen ebaluazioa.

Foru-lege honek indarra hartu eta hiru urteko epean, Nafarroako Gobernuak haren inpaktuaren ebaluazio bat egingen du, gizarteratzearen eta laneratzearen ikuspegitik bereziki.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-26/MOC-00073. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita ehiza antolatzeko egungo planak luza ditzan**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita ehiza antolatzeko egungo planak luza ditzan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egin dadila mozio hau betetzeari buruzko jarraipena.

### Zioen azalpena

Nafarroako Foru Komunitatean, ehiza-baliabideen kudeaketa ehiza antolatzeko planen bidez egituratzen da; izan ere, plan horiek oinarritzko tresna dira ehiza-barrutietako ehiza-jarduera arautzeko.

Plan horiek indarraldi jakin bat dute, eta aldizka berritu behar dira, indarrean dagoen araudia- ren arabera. Hala ere, gaur egun, ehizari buruzko foru-lege bat edo ehiza-kudeaketari buruzko foru- lege bat izapidetzen ari da, eta horrek, funtsezko aldaketak ekarriko bide ditu ehizari buruzko arau- dian eta plan horiek taxutzeko irizpideetan.

Gauzak horrela, araudi berria onetsi aurreko unean ehiza antolatzeko plan berriak idatzi behar- rarak alferrikako ahalegin administratiboa ekar dezake, segurtasun juridikorik eza sor dezake eta sorturiko dokumentuak laster zaharkiturik geratu- ko lirake.

Araudi indardunak aurreikusten du ehiza antola- tzeko planak kasu jakin batzuetan luzatzeko auke- ra, ehiza-kudeaketaren jarraitutasuna bermatzeko.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober- nua premia-tzen du i ehiza antolatzeko plan indar- dunak luza ditzan, ehizari edo ehiza-kudeaketari buruzko foru-lege berria eta hura garatzeko araudia onetsi eta indarrean jarri arte, ehiza-kudeaketaren jarraitutasuna bermatuz, segurtasun juridikoko, arau-koherentziako eta administrazio-eraginkorta- suneko irizpideen arabera.

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Foru-parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## 11-26/MOC-00074. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen baitira lehentasun nazionala eta espainiarren ongizate-estatuaren jasangarritasuna berma ditzaten

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako eta Espainiako gobernuak premiatzen baitira lehentasun nazionala eta espainiarren ongizate-estatuaren jasangarritasuna berma ditzaten.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru-parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta, kasua bada, onesteko:

Zioen azalpena

Egungo ongizate-estatu espainiarren belau-naldi osoen ahalegin etengabearen eta ekarpen eskuzabalaren emaitza da; izan ere, haien lanari eta sakrifizioari esker, zerbitzu publiko duinak ezarri ahal izan dira. Halarik ere, sistema hori krisi sakon baten pean dago gaur egun, orain arteko gobernuen kudeaketa eskasaren ondorio zuzen gisa, zeren ez baitira gai, espainiar guztiak zergakarga itogarri baten mende dituzten arren, zerbitzu publiko horien beraien kalitatea eta eraginkortasuna ziurtatzeko.

Are handiagoa den arazo bat gehitu behar zaio horri, zerbitzu publiko horien kolapsoa eragin duena eta, azkenean, hainbesteko ahaleginarekin erdietsitako sistema sakonki hondatu duena: immigrazio masiboa eta kontrolik gabea

Azken urteotan, aldaketa demografiko sakona gertatu da Espainian, zeinaren ezaugarria den biztanleria egoiliarren hazkunde bizkorra, Espai-

niako biztanleriaren hazkunde naturalaren ondoriozkoa ez dena –hori, hazi beharrean, 750.000 pertsona baino gehiago jaitsi da 2020tik–, atzerritarren sarrera masiboaren ondoriozkoa baizik. Izan ere, azken bost urteetan, Espainiak hiru milioi atzerritar inguru jaso ditu, eta lehen aldiz gainditu du izaera horretako hamar milioi egoiliarren atalasea.

Atzerritarrei buruzko Legea izenez ezagutzen den Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa onartu zenean, atzerritar jatorriko biztanleak ez ziren guztizkoaren % 4ra iristen Espainian. 2026an, % 20 baino askoz gehiago dira. Aldaketa hori ez da bilakaera natural baten ondorioz gertatu, baizik eta Espainiako gizartearen eraldaketa sakon eta berariazko baten ondorioz, orain arteko bipartidismoaren gobernuak bul-tzatuta, zeinek, immigrazio masiboko prozesu bat toleratzeaz gain, hura sustatzea erabaki baitute.

Deriba horren ondorioak agerikoak eta kezka-garriak izan dira. Immigrazio masiboak neurri jasan-zinetaraino tentsionatu ditu zerbitzu publikoak; gainera, herritarren segurtasunaren narriadura eta oinarrizko ordena- eta bizikidetzeta-baldintzen hon-damena eragin dituen faktore erabakigarria izan da.

Azken alderdi horri dagokionez, Pedro Sánchez Gobernuak Lehendakari izan zenetik, kriminalitateak gorakada nabarmena izan du larritasun bereziko eremuetan: droga-trafikoa % 60,9 igo da; sexu-erasoak, penetrazioarekin, % 215,2; sexu-askatasunaren aurkako delituak, % 56,7; dolozko giza hilketak eta hilketa-saiakerak, % 77,2; eta lesioen eta liskarren delitu larriak edo ez hain larriak, % 72,4.

2024an, kondenatu atzerritarren guztizko tasa espainiarrena halako bi izan zen. Proportzio hori betetzen da delitu mota larrietan, hala nola giza hilketan, eta hirukoitza izateraino igoz da sexu-delituen edo lapurreten kasuan. 2025ean Euskal Autonomia Erkidegoan sexu-delituengatik atxilotutakoen % 68 atzerritarra izan ziren, Ertzaintzaren arabera. 2024an, Bartzelonan sexu-erasoagatik atxilotutako lau pertsonatik hiru atzerritarra zen, eta Katalunia osoan bortxaketagatik kondenatutakoen % 91k ez zuen nazionalitate espainiarra.

Bestalde, segurtasunaren narriadura gero eta handiago horretaz eta beste faktore batzuez haratago, hala nola soldata errealen igoeraren geldialdi iraunkorra, integrazio-arazo nabarmenak eta zerbitzu eta baliabide publikoen saturazioa, bada- go bizitegi-larrialdiko egoera bat ere, eszenatoki hau are gehiago larriagotzen duena. Alokairurako laguntzen onuradunen zati handi bat atzerritar jatorriko biztanleak dira, eta espainiar asko eta askori, aldiz, behin eta berriz zapuzten zaie prestazio horietarako irispidea, haiek izan arren, beren ahaleginarekin, sistemari eusten diotenak.

Era berean, milaka pertsona hiltzen dira urtero mendekotasun-sisteman dagokien arreta jaso gabe, eta biztanleriaren laurdena baino gehiago pobrezia-arriskuan dago. Horrek guztiak agerian uzten du zerbitzu publikoen eta, bereziki, osasun-sistemaren kolapsoa, migrazio-politikek eragindako eskariaren etengabeko hazkundeak tentsionatu duelako.

Baina garrantzitsuena da, arlo horretako politikekin, gobernuek erabateko axolagabetasuna erakutsi dutela Espainiako herriak komunitate nazional gisa duen kohesio-galera dela-eta. Hainbeste etorkin hain denbora laburrean iristea bertako biztanleriaren murrizketarekin lotuta dago, egitura ekonomikoan eta bizimoduan izandako aldaketek eraginda, zeinetan bipartidismoak ere erantzukizun zuzena duen. Bi prozesu horiek Espainiako biztanleriaren ordezkapen progresiboa eragiten ari dira.

"Ate irekiko politikak" deriba horren tresna izan dira, eta horien ondorioak agerian geratzen dira jada gure auzoen nortasunaren desagerpenean, haien bizimoduaren aldaketan eta belaunaldiz belaunaldi gure bizikidetzaren egituratu zuten gizarte-loturen hausturan.

Ordezte-prozesu progresibo hori lege-sistema batek indartu du. Izan ere, sistema horri esker, praktikan, atzerritarrek masiboki iritsi dira, eta,aldi berean, espainiarrei horren ondorioei eusteko karga ezarri zaie. Horrela, beren ahaleginarekin Estatuari eusten laguntzen diotenak bidegabeki parekatu dira, baita atzeratu ere, beren lanaren eta sakrifizioaren emaitza diren zerbitzu publiko- etarako sarbidean.

Duela gutxi, Espainiako Gobernuak bi arau onartu ditu, migrazio masiboaren ondorioz gure herrialdeak jasaten dituen arazoak are gehiago areagotuko dituztenak. Horietako bat martxoaren 11ko 180/2026 Errege-dekretua da, zeinaren bidez arautzen baita Espainian dauden baina legezko bizilekua Espainiako lurraldean ez duten atzerritarren osasun-babeserako eta funts publiko-

en kargurako osasun-arretarako eskubidearen aitortza. Arau horrek aukera ematen die legez kanpoko etorkin guztiei Osasun Sistema Nazional-ean sartzeko, halako moduan non saritu egiten baitira gure lurraldean sartzeko edo bertan egote-ko Espainiako legeak urratu zituztenak.

Are larriagoa da apirilaren 14ko 316/2026 Errege-dekretua onetsi izana, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 19ko 1155/2024 Errege-dekretua, zeinaren bidez onesten baita Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua. Errege-dekretu horrek, izenak berak dioen bezala, Atzerritarrei buruzko Legearen Erregelamendua aldatzen du, Espainian legez kanpo dauden milioi erdi atzerritar gutxienez erregularizatzeko, nahiz eta aurreikuspen hori izugarri handitzen duten kalkuluak dauden.

Neurri horien epe ertainerako hauteskunde- helburua ukalezina da: nazionalizazio masiboak lortzea, milioika boto eskuratzeko migrazio masiboaren sustapenean bereziki inplikaturatu dauden ezkerreko alderdientzat.

Nolanahi ere, onartezina da lurralde nazional- era legezketasunetik kanpo sartu diren pertsonak gero erregularizazio-prozesuen bidez saritzea; izan ere, prozesu horiek, ordenamendu juridikoa bera hutsaltzeaz gain, inpunitate-mezu argi bat bidaltzen dute, gure arauak haustera bultzatuz. Eta onartezina da, halaber, beren egoera egoitza- baimen baten bidez erregularizatuta ikusten duen atzerritar orok berehala eskuratzeko espainiarrek beren ahaleginarekin ordaintzen dituzten baina haientzat eskuraezinak diren laguntzak eta presta- zioak.

Premiazkoa da amaiera ematea komunitate politiko orok oinarri izan behar dituen printzipio oinarrikoenen aurka doan errealitate bati. Estatu eta sare instituzionala ez dira existitzen formalis- mo hutsagatik, baizik eta komunitate nazional-eko kide direnen segurtasuna, justizia eta ongizatea babesteko.

Hortik ondorioztatzen denez, nazional-ek lagun- tza publiko- etarako irispidean lehentasuna izatea legitimoa izateaz gain, erantzukizun politikoaren oinarriko printzipio bati dagokio. Ez da arbitrario- tasun-kontua edo bazterketa apetatsua, baizik eta gobernu ororen betebeharrak primarioari lotutako ordainsari-justiziaren irizpidea berrestea: komuni- tate nazionala bera sostengatzen eta osatzen dutenei arreta ematea lehendabizi. Lehentasun hori konpromiso sozial baten adierazpena baino ez da, kide izatearen ideian eta norberaren kide

zaugarrienak babesteko betebeharren errotuta dagoena. Jakina, lehentasun nazionalak ez du inola ere giza izaeraren duintasun bortxaezinarekiko gatazka sortzen: komunitateak beti bermatu behar ditu laguntza bizi-larrialdiko egoeretan eta oinarritzko babesa.

Ildo horretan, Extremadurako Gobernuak onartu berri duen akordioa nabarmendu behar da, zeinak, Voxi esker, espresuki jaso baitu lehentasun nazionalaren printzipioa gizarte-laguntzetarako eta etxebizitzarako irispidean.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dituzten lehentasun nazionala eta espainiar guztien ongizate-estatuaren jasagarritasuna berma ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dituzten gure nazioan legez kanpo dauden etorkin guztiak aberriratu ditzaten, bai eta lehentasun nazionala ezar dezaten ere gizarte-laguntza, zerbitzu publiko eta etxebizitza-programa guztietarako irispidean eta beren lanarekin eta ahaleginarekin ekonomia nazionalari laguntzen ez dioten eta espainiarren ongizate-estatua higatzen duten atzerritar guztien birmigrazioari ekin diezaion.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dituzten berma dezaten espainiarren lehentasun nazionala etxebizitza sozial bat, etxebizitza babestu bat, zerga-hobari bereziak edo etxebizitzarekin lotutako edozein laguntza-mota lortzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dituzten erregelamendu-arau bat onets dezaten ondorioz gabe uzteko Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduak, azaroaren 19ko 1155/2024 Errege-dekretuaren bidez onartutakoak, izandako aldaketak, apirilaren 14ko 316/2026 Errege-dekretuaren bitartez egindakoak, eta azken hori indarririk gabe uztea, Espainian legez kanpo dauden etorkinen erregularizazio masiboko prozesuari amaiera emanaz.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dituzten berma dezaten lehentasun nazionala prestazio eta pentsio publikoen sistema publikorako irispidean, Gizarte Segurantzaren sisteman beharrezko arau-aldaketak egitea sustatuz, prestazio eta pentsio ez-kontributiboak espainiarrentzat erreserbatuta geratzen direla ziurtatzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu eta Nafarroako Gobernuak premiatzen dituzten atzerritarrei doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko orduan, baliabide ekonomikoen urritasuna zehazteko kontuan har daitezkeen eska-tzaileak atzerrian dituen ondarea eta errentak ere, bereziki bere jatorrizko herrialdean dituenak, eta ez bakarrik Espainian dituen diru-sarrerak. Nolanahi ere, atzerritarrei ez zaie doako laguntza juridikorik emanen lurralde nazionaletik kanporatzeko prozesuekin zerikusia duten gaitan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-26/MOC-00075. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita El Sadar futbol-zelaian Espainiako gizonezkoen futbol-selektzio nagusiaren partida ofizial bat edo lagunarteko bat antolatzea susta dezan, Espainiako Futbol Federazioarekin lankidetzan**

### *NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita El Sadar futbol-zelaian Espainiako gizonezkoen futbol-selektzio nagusiaren partida ofizial bat edo lagunarteko bat antolatzea susta dezan, Espainiako Futbol Federazioarekin lankidetzan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin eta Lehendakaritza eta Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean egin dakion jarraipena:

Zioen azalpena

Nafarroa, historikoki, futbolari eta, bereziki, Espainiako selektzio absolutuari estuki lotutako lurraldea da. Hamarkadetan zehar, Foru Komunitateak jokalaria ugari eman dizkio konbinatu nazionalari, eta horrek ekarpen nabarmena egin dio beren kirol-ibilbideari. Batetik, figura historikoak, Ignacio Zoco, Jesús María Satrustegui, Jesús Glaría, José María Bakero edo Jon Andoni Goikoetxea kasu, eta, bestetik, jokalaria berriagoak, hala nola Nacho Monreal, César Azpilicueta, Raúl García, Javi Martínez, David García eta Oihan Sancet, bai eta gaur egun deialdietan dauden beste

batzuk ere, esate baterako, Nico Williams, Álex Remiro edo Mikel Merino.

Nafarroako jokalarien ekarpen nabarmen hori erakargarri gehigarria da, eta Nafarroako herritarrek Espainiako selektzioarekiko duten interesa eta lotura areagotzen ditu.

Hala ere, Nafarroak egoera berezia du: gizonezkoen selektzio absolutuak inoiz partidarik jokatu ez duen Espainiako 22 probintzietako bat da, eta, gainera, selektzio nazionalaren partidarik hartu ez duen autonomia-erkidego bakarra da. Hori guztia, nahiz eta Espainiako selektzioaren lehen partida ofiziala 1920ko abuztuan jokatu zen; hortaz, mende bat baino gehiagoko historia metatzen du Nafarroan jokatu gabe.

Are deigarriagoa da kontuan hartzen bada probintziako hiriburuak ez diren hiriak, hala nola Elx, Villarreal, Getafe, Leganés, Jerez, La Línea edo Cartagena, Espainiako selektzioaren topaketen egoitza izan direla.

Selektzio nazionala espainiar guztien ondarea da, eta, beraz, herritar guztiek izan beharko lukete aukera beren lurraldean hura ikusteko. Nafarroa, gainera, tradizio eta futbolarekiko grina handiko erkidegoa da, Osasuna Klub Atletikoarekiko zaletasunak erakusten duen bezala, eskualdeko futbol erreferente nagusia eta Espainiako futbol klub historikoetako bat.

El Sadar estadioa, 2021ean amaitutako birmoldaketa sakon baten xede izan zena, azpiegitura modernoa da gaur egun, egungo estandarretara erabat egokituta dago eta lehen mailako kirol-ekitaldiak hartzeko gaitasun nahikoa du. Izan ere, Stadium Database plataforma espezializatuak «2021eko munduko estadio hoberena» izendatu zuen.

Gainera, El Sadarrek dagoeneko erakutsi du antolatzeko gaitasuna, nazioarteko ekitaldi garrantzitsuak hartu baititu, adibidez, 2022ko ekainaren 5ean Argentinaren eta Estoniaren artean egindako lagunarteko topaketa, 18.000 ikusle baino gehiago bildu zituen. Era berean, urte horretan bertan, Espainiako emakumeen selektzioaren partida bat hartu zuen Ameriketako Estatu

Batuen aurka. Partida horrek arrakasta izan zuen bai kirolaren aldetik, bai bertaratuei dagokienez, errekor historiko bat ezarri baitzuen une hartan.

Duela gutxi ere Iruña izendatu dute 2030eko munduko txapelketan parte hartuko duten selekzioetako baten entrenamendurako azpiegoitza, eta horrek agerian uzten du antolatze duen gaitasuna eta nazioarteko futbol-ekitaldien agertoki izateko egokitasuna.

Egia da Foru Komunitatean sentsibilitate politiko eta identitario desberdinak daudela, baina aniztasun horrek ez du oztopo izan behar, bizikidetzaren demokratikoaren erakusgarri baizik. Badaude aurrekariak antzeko errealitateak dituzten beste autonomia-erkidego batzuetan, baita sentimendu independentistak indar handiagoa duen horietan ere, hala nola Euskadin edo Katalunian, non Espainiako selekzioak duela gutxi jokatu baititu norgehiagokak, bai 2022an, bai joan den martxoaren 31n, eta normaltasunez eta arrakastaz garatu dira.

Espainiako selekzioak Nafarroan jokatzeko posibilitatea, garrantzi handiko kirol-ekitaldia izateaz gain, aukera bat ere izanen litzateke kohesioa indartzeko, komunitate ireki eta pluralaren irudia proiektatzeko, eta bere lurraldean selekzioaz gozatu nahi duten milaka nafarren eskaerari erantzuteko.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta, gainera, Nafarroako Futbol Federazioak bere mendeurrena dela-eta 2028an partida bat sustatzeko adierazi duen borondatea, egokia da Nafarroako erakundeek ekimen hori bultzatzea.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du:

1. El Sadar futbol-zelaian Espainiako gizonezkoen futbol-selekzio nagusiaren partida ofizial bat edo lagunarteko bat antolatzea susta dezan, Espainiako Futbol Federazioarekin lankidetzan.

2. Behar diren harremanak eta kudeaketak egitea erakunde eta organismo eskudunekin, partida hori jokatu ahal izateko, bereziki ekitaldi garrantzitsuen esparruan, 2028an Nafarroako Futbol Federazioa egitekoa den mendeurrena kasu.

3. Inplikaturako toki- eta kirol-entitateekin lankidetzan aritzea, ekitaldia behar bezala antolatzen dela bermatzeko eta Nafarroako Foru Komunitateko gizartean, kirolean eta ekonomian duen eragina maximizatzeko.

4. Iruñeko Udalarekin koordinatuta, ekitaldia sustatzeko eta herritarrek parte hartzeko ekintzak bultzatzea, haren arrakasta bultzatzeko, betiere Nafarroako gizartean dauden sentsibilitateen pluraltasuna eta aniztasuna errespetatuz.

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Foru-parlamentaria: Javier García Jiménez

## **11-26/MOC-00038. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuarekin premiatzen baita Seguritasun Batzordea urgentziaz deitu dezan, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean ezarritako polizia-eredua garatzeko beharrezkoa den foruzainen muga desblokeatzeko**

### **MOZIOA ERRETIRATZEA**

2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Estatuko Gobernuarekin premiatzen da Seguritasun Batzordea urgentziaz deitu dezan, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legean ezarritako polizia-

eredua garatzeko beharrezkoa den foruzainen muga desblokeatzeko. Mozioa 2026ko martxoaren 6ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-26/POR-00143. Galdera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean jasotzen den diskriminaziorik ezeko printzipioa bermatzeko jarduketei buruzkoa***MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean jasotzen den diskriminaziorik ezeko printzipioa bermatzeko jarduketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Arantza Biurrun Urpegui andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ez dira gertakari isolatuak emakumeak sistematikoki baztertuak izatea, izaera kultural, sozial edo erlijiosoko tradizio zaharretan oinarrituta, gizonezkoei bezalatsu dagozkigun espazioetatik, bazterte hori sexuagatiko diskriminazio izateraino hel baitaiteke, berdintasunaren arloko legedia urratuta.

Saguntoko Aste Santua ospatzen ari zen bitartean jakin genuen Cofradía de la Purísima Sangre de Nuestro Señor Jesucristo izenekoak betoa jarri ziola emakumeek herri horretako Aste Santuko erlijio-adierazpenetan parte hartzeari.

Eta orain dela gutxi jakin dugu Iruñeko elkarte gastronomiko historiko batek uko egiten ziola Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egindako eskaerari, sexuagatiko diskriminazioagatik jasotako kexen aurrean emakumeak bazkide izateko betoa ken dezan.

Hori dela-eta,

Nafarroako Gobernuak zer egin du Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean jasotzen den diskriminaziorik ezaren printzipioa bermatzeko?

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Foru-parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## 11-26/POR-00144. Galdera, herri txikietan autonomoen jarduera sustatzeko neurriei buruzkoa

*MARÍA ARANZASU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, herri txikietan autonomoen jarduera sustatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoa-

ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Langile autonomoek funtsezko zeregina betetzen dute Nafarroako Foru Komunitateko ekoizpen-eta gizarte-sarean, eta modu erabakigarrian laguntzen dute aberastasuna sortzen, enpleguari eusten eta gizarte-kohesioa lortzen.

Gauzak horrela, eta udalherri txikietan autonomoei laguntzeko dauden neurrien norainokoa eta ezaugarriak ezagutzeko, honako galdera hau egingen dut:

Zer neurri jarri ditu abian Nafarroako Gobernuak udalherri txikietan autonomoen jarduera sustatzeko eta, horrela, despopulazioaren aurka borrokan laguntzeko?

Iruñean, 2026ko apirilaren 20an

Foru-parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## 11-26/POR-00145. Galdera, gazteek boluntariotzan parte hartzeari buruzkoa

*ÚRSULA PARDO GARCÍA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Úrsula Pardo García andreak egindako galdera, gazteek boluntariotzan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Úrsula Pardo García andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egingen dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriarako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Gazteriarren Institutuaren bidez, gazte-boluntariotzako hainbat kanpaldi antolatzen ditu hala Nafarroan nola beste autonomia-erkidego batzuetan eta atzerrian, Gazteriarren Institutuarekin eta Gazteen Boluntariotza Zerbitzuarekin lankidetzan.

Zure departamentuak nola baloratzen du gazteek boluntariotzaren arloan duten parte-hartzea?

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Foru-parlamentaria: Úrsula Pardo García

## 11-26/POR-00146. Galdera, Lombricultura Valtierra SLren egoerari buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Lombricultura Valtierra SLren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen eta Nafarroako Gortetako kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Nola baloratzen du Nafarroako Gobernuak Valtierako konpostaje-instalazioaren egungo egoera (haren titulartasuna Lombricultura Valtierra, SLrena da)?

Iruñean, 2026ko apirilaren 21ean

Foru-parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-26/POR-00147. Galdera, toki-entitateen gazteriaren arloko politikei buruzkoa

*ÚRSULA PARDO GARCÍA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Úrsula Pardo García andreak egindako galdera, toki-entitateen gazteriaren arloko politikei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Úrsula Pardo García andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriko eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan, gazteria-politikak toki-eremutik gartzten dira hein handi batean, udalak baitira gazte-enganetik hurbilen dagoen administrazioa. Nafarroako Gazte-informazioko Sarea gazteek gizartean parte hartzeko eta inplikatzeko bidea da.

Nola egiten du lan zure departamentuak toki-entitateen gazteria-politiken arloan?

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Foru-parlamentaria: Úrsula Pardo García

## 11-26/POR-00148. Galdera, Nafarroako gazteen ongizate emozionalari buruzkoa

*ÚRSULA PARDO GARCÍA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Úrsula Pardo García andreak egindako galdera, Nafarroako gazteen ongizate emozionalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Úrsula Pardo García andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazterian

ko eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nerabearoa garapenerako funtsezko etapa da, osasun mentalean eragina izan dezaketean aldaketa fisiko eta emozionalak gertatzen baitira. Azken urteotan, gazteen ongizate emozionalak gero eta kezka handiagoa sortzen du. Gero eta nerabe eta gazte gehiagok adierazten dute estresa, antsietatea, motibaziorik eza, bakardadea edo nahikoa laguntzarik ez izatearen sentsazioa. Hori ez da kausa bakar baten ondorio, baizik eta konbinatzen diren hainbat faktoreren ondorio: presio akademikoa, etorkizunari buruzko ziurgabetasuna, zailtasun ekonomikoak, familia-gatazkak, eskola-jazarpena eta sare sozialen inpaktua...

Nola lan egiten ari da eta zer lehentasun ditu Nafarroako Gazteriaren Institutuak arazo horren aurrean?

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Foru-parlamentaria: Úrsula Pardo García

## 11-26/POR-00149. Galdera, jakiteko ea zergatik ez diren ebatzi Erreniega aldean ikerketa-baimenak luzatzea ukatzeagatik Geoalcali SLk aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioak

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, jakiteko ea zergatik ez diren ebatzi Erreniega aldean ikerketa-baimenak luzatzea ukatzeagatik Geoalcali SLk aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Departamentuak ez ditu ebatzi GEOALCALI, SLK Industriaren, Energiaren eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren eta Industriaren, Energiaren eta Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiaren ebazpenen aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioak (ebazpen horien bidez, ukatu egiten zen Erreniega inguruan ikerketak egiteko kasuko baimenen bigarren luzapena). Kontuan izanda merkataritza-sozietate horrek bere akziodunentzako

2025eko ekitaldiko oroitidazkian jarraitzen duela pentsatzen "Espainiako aholkularitza juridikoaren arabera ebazpen-etak ez duela zertan adierazi apelazioaren funtsa eta ez dela aurreikusten ondorio oker eta nabarmena edukitzea konpainiarentzat", departamentuak zergatik ez ditu ebatzi errekursoak?

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

---

## 11-26/POR-00150. Galdera, istripu-tasa murrizteko eta lan-mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko San Adrián go proiektu pilotuari buruzkoa

*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, istripu-tasa murrizteko eta lan-mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko San Adrián go proiektu pilotuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Lan-istripuen aurkako borroka lehentasunezko jarduera-ardatzetako bat da kalitatezko enplegua bermatzeko.

Nafarroako lan-istripuei buruzko datuei erreparatzen badiegu, "in itinere" gertatutako istripuek, hau da, lanera joan edo itzultzean gertatzen direnek, erregistratutako lan-istripu guztien % 10 inguru egiten dute.

Era berean, gure erkidegoan jasangarritasunaren aldeko apustua egiteko, mugikortasun jasangarria sustatu behar da, oro har, eta laneko mugikortasuna, bereziki, emisioak murriztea, laneko bide-segurtasuna, energia- eta baliabide-efizientzia eta mugikortasun aktiboa ahalbidetuko dituena.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Zer helburu lortu nahi da eta nola garatuko da San Adrián abian jarritako proiektu pilotua, istripu-tasa murrizteko eta lan-mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## **11-26/POR-00151. Galdera, ostatu turistikoen arloko 2026 eta 2027ko ikuskapen-plan berriari buruzkoa**

*IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, ostatu turistikoen arloko 2026 eta 2027ko ikuskapen-plan berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Turismo Zuzendaritza Nagusiak 600 jarduketa baino gehiago egin zituen Turismo-ikuskapeneko 2025eko planaren baitan. Plan horren bidez, zehapena ez ezik, eredu turistiko orekatu eta jasangarria babestea ere bilatzen da, kontrolik gabeko turismoak etxebizitzaren prezioan eta egoiliarren atsedenean dituen ondorio negatiboak arintzeko lan eginez.

Zer helburu eta berrikuntza ezartzen ditu departamentuak turismo-ostatuen arloko 26-27 Ikuskapen-plan berriarekin?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Ibai Crespo Luna

---

## **11-26/POR-00152. Galdera, PAI hezkuntza-eredu bihurtzeari buruzkoa**

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, PAI hezkuntza-eredu bihurtzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den otsailean Nafarroako Parlamentura British-TIL-A (Britila) ikastetxeetako guraso-elkar-teen federazioaren ordezkariak etorri ziren, "mugarri eta epe argien kronograma" bat ezar dadin eskatzeko, PAI hezkuntza-eredu bihurtu dadin.

Hori dela-eta, ohartzen gara Hezkuntza Departamentua aktiboki lan egiten ari dela PAIa hezkuntza-eredu bihurtzeko, baina jakin nahi dugu zer aurrerabide egiten ari den arlo horretan.

Zertan dira Hezkuntza Departamentuaren lanak PAI hezkuntza-eredu bihurtzeko?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

---

## **11-26/POR-00153. Galdera, gazte nafarrek industrian enplegua lortu ahal izateari buruzkoa**

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaia, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, gazte nafarrek industrian enplegua lortu ahal izateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru-parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak zer proiektu egitea aurreikusten du, Nafarroako Gobernuo gaineko departamentuekin lankidetzan, gazte nafarrek industrian enplegua lortzeko aukerak bultzatzeko?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## 11-26/PES-00107. Galdera, jakiteko ea Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak zergatik ez zuen aurkeztu kontratuen plangintzari buruzko dokumentazioa 2024an

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, jakiteko ea Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak zergatik ez zuen aurkeztu kontratuen plangintzari buruzko dokumentazioa 2024an.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

2024ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko fiskalizazio-txostenak adierazten duenez, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua izan zen kontratuen plangintzari buruzko dokumentaziorik aurkeztu ez zuten Nafarroako Gobernuko hiru departamentuetako bat. Betebehar hori lege eskatzen ahal da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 2. artikulua araberan.

1. Zergatik ez zen plangintza hori aurkeztu?

2. Departamentuak 2025erako plangintza aurkeztu zuen? Erantzuna baiezkoa bada, bete al zen aurreikusitakoa?

3. Departamentuak 2026rako plangintza aurkeztu zuen?

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-26/PES-00108. Galdera, Nafarroako hirugarren sektoreari buruzko lege berriari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroako hirugarren sektoreari buruzko lege berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein egoeratan dago iragarritako Nafarroako hirugarren sektoreari buruzko lege berria gaur egun, eta araugintza-prozesuaren zein fasetan dago? Aurreikusten al da izapidetzeko egutegirik?

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Foru-parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

**11-26/PES-00109. Galdera, Nafarroako Inklusio-estrategiari buruzkoa***RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroako Inklusio-estrategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein egoera eta fasetan dago gaur egun Nafarroako Gizarte-inklusioko Estrategia eta zein jarduketa eta epe aurreikusten dira onartzeko?

Iruñean, 2026ko apirilaren 17an

Foru-parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

**11-26/PES-00110. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuaren eta KPMG aholkularitza-enpresaren arteko kontratuaren epea luzatzeari buruzkoa***CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuaren eta KPMG aholkularitza-enpresaren arteko kontratuaren epea luzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Inbertsio Institutuak eta KPMGk diagnostikorako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoaren kontratua egin zuten, Nafarroan hazkunde ekonomikoa indartze aldera. Lanen epea luzatzea erabaki da, eta, horren ondorioz, kontratuan jasota dauden mugariak edo jarduketak aldatu dira. Noiz erabaki da alderdiek adostutako lanen epea luzatzea?

Zeintzuk dira erabaki hori hartzeko arrazoiak? Ba al dago horri buruzko idatzizko dokumentueuskarrik? Erantzuna baiezkoa bada, aurkezteko eskatzen dut.

Zeintzuk dira epe berriak eta adostutako mugari edo jarduketan kronograma berria?

Iruñean, 2026ko apirilaren 21ean

Foru-parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-26/PES-00111. Galdera, iragan apirilaren 19an Tuterako harrera-pisu batean adingabe bat atxilotu izanari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, iragan apirilaren 19an Tuterako harrera-pisu batean adingabe bat atxilotu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Par-

lamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer dela-eta atxilotu zuten apirilaren 19an, igandearekin, gazte adingabe bat, antza denez, Tuterako harrera-pisu batean?

Pisuak zenbat plaza ditu eta zenbat zeuden okupatuta egun horretan?

Zenbat adingabe eta zenbat tutore (edo antzeko zaintza- eta laguntza-figura) zeuden pisuan salatutako gertakarien unean? Baliabide horretan egon beharko luketen tutore (edo antzeko zaintza- eta laguntza-figura) guztiak zeuden?

Zer neurri hartuak ziren etxean gatazka-egoerak ez gertatzeko eta zergatik egin zuten huts?

Zer egingen du Gobernuak horrelako gertaerak berriz gerta ez daitezen?

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Foru-parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-26/PES-00112. Galdera, sektore aeroespazialari buruzkoa

*MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, sektore aeroespazialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako idatzizko galdera hau egiten du:

– Zer neurri zehatz ditu edo izateko asmoa du Nafarroako Gobernuak ziurtatzeko sektore aeroespazialerako laguntza-neurriak ez direla erabiliko gerrako armak eraikitzea bideratutako osagaiak edo beste edozein ondasun edo zerbitzu fabrikatzen dituzten enpresa-proiektuetarako?

– Nafarroako Gobernuak ba al du tresnarik monitorizatzeko Nafarroako zer enpresa-jarduera bideratzen diren defentsaren sektorera eta jardue-

ra horien azken helmuga eta giza ondorioak zein diren jakiteko?

– Nafarroako Gobernuak ziurta al dezake Nafarroako sektore aeroespazialari laguntzeko bere neurrietako batek ere edo hedatzea aurreikusten duen neurrietako batek ere ez duela lagunduko, ez zuzenean ez zeharka, giza eskubideen urraketetan edo gizateriaren aurkako krimenetan? Zer tresna ditu horretarako?

– Nola baloratzen du Nafarroako Gobernuak Nafarroako sektore aeroespazialari laguntzeko bere neurriak edo hedatzea aurreikusten dituen neurriak zuzenean edo zeharka giza eskubideen urraketei edo gizateriaren aurkako krimenei laguntzen dieten enpresa-jardueretan erabiltzeko aukera hutsa?

Iruñean, 2026ko apirilaren 22an

Foru-parlamentaria: Miguel Garrido Sola

## 11-26/PES-00113. Galdera, Geoalcali SLri 2011tik aitzina emandako meatze-ikerketarako baimenei buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Geoalcali SLri 2011tik aitzina emandako meatze-ikerketarako baimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

– Zer ikerketa-baimen eman zaizkio Geoalcali SL merkataritza-sozietateari 2011tik 2026ra arte?

– Zein egoeratan dago horietako bakoitza?

– Horietako zein bihurtu dira ustiapen-baimen?

– Zenbat jo dira iraungitzat eta zenbatetan jarri ditu Geoalcali merkataritza-sozietateak luzapenak ukatzearen aurkako gora jotzeko errekurtsioak? Errekurtsio horiek ebatzi dira?

– Ba al dago Geoalcali SLk jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsorik ustiapen-baimenei dagokienez?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-26/PES-00114. Galdera, Miguel Induráin Fundazioaren kirolariendako beken deialdiari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Miguel Induráin Fundazioaren kirolariendako beken deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foruparlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Duela gutxi argitaratu da Nafarroako kirolariendako 2026ko dirulaguntza-deialdia. Dirulaguntzak Miguel Induráin Fundazioaren bidez kudeatzen dira.

Deialdi horren oinarri arautzaileek ezartzen dute, onuradun izateko baldintzen artean, Nafarroako forudunaren izaera zibila edo nafar izaera politikoa izateko beharra, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5. artikuluekin bat.

Hala ere, ikusi da Nafarroan finkatuta dauden, federazio-lizentzia indarrean duten, Nafarroako klubetako kide diren eta lehiaketa ofizialetan de facto Nafarroaren ordezkari diren kirolariak laguntza horietatik kanpo geratzen ahal direla, baldintza formal hori bete ezin dutelako. Hori litzateke, adibidez,

saharar jatorriko kirolarien kasua; izan ere, inguruabar jakin batzuetan aberrigabetasun-egoeran egoten ahal dira edo deialdian eskatutako baldintza juridikorik ez izan.

Egoera horrek disfuntzioa sortzen ahal du deialdiaren helburuaren –Nafarroari lotutako pertsonen kirol-garapena bultzatzea– eta deialdian sartzeko baldintza formalen artean.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak uste du, Nafarroako forudunaren izaera zibila edo nafar izaera politikoa izateko eskakizunak, Miguel Induráin Fundazioaren 2026ko kirolariendako laguntza-deialdian ezarritako baldintzetan, eragozten ahal diela laguntza horiek jasotzea Nafarroan bizi diren, federazio-lizentzia indarrean duten eta Nafarroaren ordezkari gisa lehiatzen diren kirolariei, aberrigabeen edo espainiar nazionalitate gabeko pertsonen kasuan, adibidez?

Nafarroako Gobernuak ezagutzen al du kasu zehatzik non, kirol-betekizunak eta Nafarroarekiko lotura efektiboa beteta, kirolariak laguntza horietatik kanpo geratu diren edo geratzen ahal diren nafar izaera zibilari edo politikoari buruzko baldintza ez betetzeagatik?

Hala baldin bada,

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak egoera horri buruz, deialdiaren eta Nafarroari lotutako kirolari eta kirolariei laguntzeko helburuen arteko koherentziaren ikuspegitik?

Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak, zuzenean edo Miguel Induráin Fundazioaren bidez, baztertzeko posible hori zuzentzeko neurririk hartzea, bai etorkizuneko deialdien oinarri arautzaileak aldatuz, bai deskribatutako kasuetan laguntza horiek eskuratzeko aukera ematen duten mekanismoak gaituz?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## 11-26/PES-00115. Galdera, Nafarroako Net Zero Tech Valley estrategiari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Nafarroako Net Zero Tech Valley strategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrirakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

2026ko apirilaren 21ean, Nafarroako Gobernu-ko Industriako kontseilariak Nafarroako Net Zero Tech Valley estrategia aurkeztu zuen Hannoverren.

1. Zertan datza aipatutako Nafarroako estrategia hori? (2024/1735 (EB) Erregelamenduan jasotakoaz harago)

2. Ba al dago "Zero emisio garbiko azelerazio-bailara" gisa aitortzeko aurkeztu den proiektu zehatzik Nafarroan?

3. Nafarroako Gobernuak proiektu zehatzen bat lantzen ari da bere ekimenez edo lankidetzaren publiko-privatuan?

4. Zer proiektu dira kasu bakoitzean?

Gainera, Bailara horiek arautzen dituen 2024/1735 (EB) Erregelamenduan 17.3 artikuluan honako hau jasotzen da hitzez hitz:

"Estatu kide batek bailara bat izendatzeko hartzen duen erabaki orori plan bat erantsiko zaio. Plan horretan, fabrikazio-jardueretarako kokapen erakargarria hobetzeko neurri nazional zehatzak ezarriko dira, eta, gutxienez, laguntza ekonomiko eta administratiboko programa hauek jasoko dira, honako hauetarako:

a) Bailaran beharrezkoak diren azpiegituren garapena errazteko;

b) Bailarako inbertsio pribatuei laguntzeko

c) Tokiko langileen lanbide-birziklapen eta -hobekuntza egokia lortzeko;

d) Bailarari buruzko informaziorako online sarbidea ematea, 7. artikuluan araberan".

5. Nafarroako Gobernuak ba al du aipatutako plan hori?

6. Zer neurri jasotzen ditu planak?

7. Gobernuak aurreikusitako neurriren batek lege-aldaketak behar baditu, noiz hasiko dute aldaketa-prozedura?

8. Zein kronograma darabil Departamentuak Nafarroan zero emisio garbiko azelerazio-bailarak abian jartzeko?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

## 11-26/PES-00116. Galdera, Iruñeko aireportuko aire bidezko konexio berrien lizitazioa argitaratzeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Iruñeko aireportuko aire bidezko konexio berrien lizitazioa argitaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Zergatik jarraitzen du Nafarroako Gobernuak Iruñeko aireporturako aire-konexio berrietarako lizitazioa argitaratu gabe?

2. Zer zailtasun izaten ari dira?

3. Zein da Nafarroako Gobernuak lizitazioa argitaratzeko darabilen aurreikuspena?

4. Zein dira Nafarroako Gobernuak planteatu dituen aldeak (zenbateko ekonomikoa, destinoak...) hutsik geratu zen lehen lizitazioarekiko?

5. Nafarroako Gobernuak AENArekin harremanetan egon al da bidaiariei mesede eginen lieketen aireportu-tasak murriztea planteatzeko? Erantzuna baiezkoa bada, zein izan da AENAREN erantzuna? Erantzuna ezezkoa bada, Nafarroako Gobernuak zergatik ez dio oraindik planteatu AENARI murrizketa hori?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-26/PES-00117. Galdera, Nafarroako Ubidearen “etorkizuneko erabilen” 2068ra bitarteko aurrerakin ekonomikoak eta interesak itzultzeko epea aldatzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen “etorkizuneko erabilen” 2068ra bitarteko aurrerakin ekonomikoak eta interesak itzultzeko epea aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, Lurralde Kohesiorako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Pasa den apirilaren 21ean, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren (MITECO) eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Negoziazio Batzordea bildu zen. Bilera horretan, "Nafarroako Ubidea gauzatzeko eta finantzatzeko hitzarmenaren testua adostu da, eta, zehazki, azpiegitura osatzekoa, egiteke dagoen bigarren fasea eraikita".

2013ko abuztuaren 28an, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Ubidea eraikitzeko elkarren arteko lankidetzaz hitzarmena gaurkotzeko hiru garren akordioa izenpetu zuten. Bosgarren klausulan, Nafarroako Gobernuak adierazten du konpromisoa hartzen duela 2013tik 2026ra bitarte diru-aurrerakin bat egiteko Canal de Navarra SA sozietateari, "Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerak" kontzepturako, aurreikusirik, halaber, Canal de Navarra SA sozietateak aurrerakin hori itzuliko diola Nafarroako Gobernuari 2027. urtetik 2040. urtera bitarte, urtean ehuneko hiruko interesa sorrarazita, eta zorra lehenago amortizatu ahal izanen duela funtsik egonez gero.

Horretarako 35/2013 Foru Legea onetsi zen, azaroaren 26koa, zeinak ezartzen baitu, batetik, zein urtaldiri egotziko zaien Nafarroako Gobernuak Canal de Navarra SA sozietateari "Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerak" kontzepturako ematea hitzartua duen diru-aurrerakinaren finantza-gastua (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Nafarroako Ubidea eraikitzeko lankidetzaz hitzarmenaren gaurkotze-agiriaren bosgarren klausularen arabera diru-aurrerakina), eta bestetik, 8.500.000 euroko kreditu berezia emanen dela 2013ko gastuak finantzatzeko.

Prentsa-ohar ofizialean adierazi zenez, "2014an harpidetutako etorkizuneko erabileren aurrerakin ekonomikoari dagokionez, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du baldintzen aldaketa bat izapidetzeko, eta, horrela, Canal de Navarra SA Estatuko Merkataritza Sozietateak aurrerakin ekonomiko hori Nafarroako Foru Komunitateari itzuliko dio 2055. urtetik 2068ra bitartean, eta % 2,50eko interesa sortuko du aldaketa hori onartzen den ekitalditik aurrera. Orain arte, Nafarroako Gobernuak 75.650.000 euro jarri ditu,

Canasaren finantzaketa-beharrei erantzuteko konprometitutako 77.000.000 euroetatik".

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1. Zergatik onartu da Nafarroak 2013tik Canal de Navarra SA merkataritza-sozietateari egin dion 77 milioi euroko aurrerakin ekonomikoaren itzulketaren atzerapena, aurrerakina itzultzen hasteko epea 2027tik 2055era igarota, eta itzulketa 2040. urtean ez baizik eta 2068. urtean amaituta, hau da, aurreikusitakoa baino 28 urte geroago?

2. Adierazten da 77 milioiengatik sortuko den interesa ez dela izango 2013an itundutako % 3a, baizik eta % 2,5a. Zergatik jaitsi da hasieran hitzartu zen interes-tasa, horrek Nafarroako Ogasunari ekarriko dion galera ekonomikoarekin?

3. Kuantifikatu al da % 0,5eko murrizketa duen interes txikiago horrek Nafarroako Ogasunari suposatuko diona?

4. Canal de Navarra SArekin egindako akordioan aurreikusita zegoen 2027tik 2040ra 28,268 milioi euro ordainduko zirela guztira. Iragartzen den itzulketaren atzerapenarekin, urte horietan zenbateko horiek Nafarroako Ogasunari ordaintzen jarraituko da edo galdutzat jotzen dira, eta Canasak 77 milioi horiek bere diruzaintzan izaten jarraituko du inolako kosturik gabe, finantza-aktiboetan inbertituta bere onura eskusiborako, harik eta 2055ean printzipala gehi itundutako interes berriak itzultzen hasi arte?

5. Nafarroako Gobernuaren ez al du uste, 2027tik 2055era bitartean Canasak ez badu ezer ordaintzen Nafarroaren eskutik 2013az geroztik jasotzen ari den diru horrengatik, kalte larria egiten ari al zaiola Nafarroako Ogasunari?

6. Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasearen Proiektuko obrak finantzatzeko beharrezkoak diren 77 milioi horietatik, zergatik Estatuak ez du sozietatean duen partaidetzaren arabera legokion % 60ko ekarpena egin behar?

7. Zergatik aurreratu behar ditu Nafarroak 77 milioi euro horiek eta Estatuak ez du inolako ekarpenik eginen, halako moduan non erabiltzaileek beren tarifetan printzipala eta interesak itzultzeko kostua jarri beharko duten, gastu hori 2055 eta 2068 artean atzeratu bada ere?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-26/PES-00118. Galdera, etxeko eta zaintzen arloko emakume langileen diskriminazioari buruzkoa

OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak egindako galdera, etxeko eta zaintzen arloko emakume langileen diskriminazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Oihana Gallo San Román andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

SOS Arrazakeria elkarteak aurkeztutako "Etxeko langileen kontrako arrazakeria- eta indarkeria-adierazpenak" izeneko urteko txostenaren arabe-

ra, egiturazko arrazakeria eta arraza-diskriminazioa adierazpen diskriminatzaileen bidez zertzen dira, etxeko eta zaintzen esparruan lan egiten duten emakume migratzaile eta arrazializatuen esperientzietan ikus daitekeenez.

SOS Arrazakeria Federazioaren txostenaren arabera, etxeko eta zaintzen esparruko langile migratzaileen ia % 66k jasan du arraza-diskriminazioaren bat.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

- Etxeko eta zaintzen esparruko langileen aurkako zenbat diskriminazio-kasu artatu dituzte Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuek? Nola jokatu da kasu horietan?

- Prestakuntzako zenbat esku-hartze egin dira antiarrazakeriari eta feminismoari buruz zaintzen eta mendekotasunean esku hartzen duten langileekin?

- Arrazakeriaren aurkako Planean aipatzen diren arraza-diskriminazioko, xenofobiako edo interseksionaleko gertakarien aurrean jarduteko eta salatzeko protokoloetan, berriaz jasotzen al da etxeko eta mendekotasuneko langileen diskriminazioaren kasua?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Oihana Gallo San Román

**11-26/PES-00119. Galdera, PFEZaren deflaktazioari buruzkoa****IDATZIZKO GALDERA BIHURTZEA**

2026ko apirilaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Irene Royo Ortín andreak idatzi bat aurkeztu du, zeinaren bidez eskatzen baitu idatzizko galdera bihurtu dadin Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko egin zuen galdera, PFEZaren deflaktazioari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 42. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Adieraztea aipaturiko ahozko galdera idatzizko galdera bihurtu izanaren berri izan duela (11-26/POR-00123 y 11-26/PES-00119).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**3.** Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Gobernuari, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan, eta Irene Royo Ortín andreaki.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-26/GPER-00004. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2026rako plantilla organikoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.1 artikulua xedatzen du Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onetsi behar dela, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren.

Hori horrela, ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak Legebiltzarraren zerbitzuko langileen plantilla organikoari dagokionez egin duen proposamena, zeinean Legebiltzarreko zerbitzuek eta Nafarroako Arartekoak proposatutako aldaketak jasotzen baitira, Nafarroako Parlamentuko Langi-

leen Estatutuaren 14.1 artikuluekin bat, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikulua araberan, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen honako plantilla organikoa onestea 2026. urterako.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Legelari Nagusiari eta Legebiltzarreko zerbitziburuei jakinaraztea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## a) Funtzionarioak

	Kop.	Maila	Izendapen- askea	Esklusib- otasuna	Bate- raezin- tasuna	Lanpostuko osagarria	Mailako osagarria	Berariazko osagarria	Arrisku berezia	Zuzendaritza postuko osagarria*
<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>										
Legelari nagusia (1)	---	A	X	55		98,30		35		
<b>Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren idazkaritza</b>										
Administrari burua (2)	---	C	X							10
Administraria	2	C				62,68	12			
<b>Prentsa Atala</b>										
Atalburua (3)	--									20
Komunikazioko teknikaria	1	A			35	51,30				
Ikus-entzunezkoen komunikazioko teknikaria (4)	1	A			35	51,30				
Administrariak (4)	1	C				62,68	12			
<b>Protokolo Atala</b>										
Atalburua (3)	--									20
Protokoloko teknikaria (5)	1	B			35	49,40				
Administraria (6)	1	C				62,68	12			
Protokoloko harremanetako idazkaria (7)	1	C	X			62,68	12			
<b>ZERBITZU JURIDIKOAK</b>										
Legelaria	5	A		55		81,30				
<b>Kudeaketa Parlamentarioko Atala</b>										
Atalburua (8)	--	A								20
Administraria (4)	5	C				62,68	12			
<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>										
Zerbitziburua (9)	1	-	X	55		61,30				
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	49,40				
Mantentze-lanetako burua (10)	---	C	X							10
Mantentze-lanetako teknikari-ofiziala	2	C				62,68	12		10	
Gelazain nagusia (11)	---	D	X							10
Gelazainak (12)	9	D				53,00	15			
<b>ARGITALPENAK, ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>										
Zerbitziburua (9)	1	-	X	55		61,30				
Artxibo eta dokumentuen kudeaketako goi mailako teknikaria	1	A			35	51,30				
Itzultzaileak (13)	5	A		55		35,30				
Transkribatzaileak (14)	6	C				62,68	12			
Liburutegi, dokumentazio eta artxiboko erdi-mailako teknikaria	1	B			35	49,40				
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista (15)	1	B			35	49,40				
Administraria (4)	2	C				62,68	12			
<b>KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA</b>										
Zerbitziburua (9)	1	-	X	55		61,30				
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	49,40				
<b>Aurrekontuen Kudeaketa eta Kontabilitateko Atala</b>										
Atalburua (16)	---									20
Administraria	2	C				62,68	12			

<b>INFORMATIKAKO, IKUS-ENTZUNEZKOEN SISTEMETAKO ETA TEKNOLOGIAKO ZERBITZUA</b>						
Zerbitziburua (9)	1	-	X	55	61,30	
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A		35	51,30	
Sistema informatikoetako erdi mailako teknikaria	2	B		35	49,40	
<b>Sistemen kudeaketarako atala</b>						
Atalburua (16)	--					20
Sistema informatikoetako teknikari-ofiziala	1	C			62,68	12
Ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala	1	C			62,68	12
<b>NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA</b>						
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	1	B		35	49,40	35
Administraria (4)	3	C			62,68	12

Oharra:

\* Zuzendaritza lanpostuko osagarria. A mailako soldatari erreferentziatua.

- (1) Izendapen askea, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien eta Nafarroako Gobernuko Aholkulari Juridikoen artean. Plantilla organikoaren argitaratze-egunean, Nafarroako Parlamentuko legelari batek betetzen du.
- (2) Legelari Nagusiak izendatua, Parlamentuko administrarien kidegoko funtzionarioen artean.
- (3) Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketarako deialdi bidez bete behar da.
- (4) C1 mailako euskara-eskakizuna duen lanpostua.
- (5) B1 mailako ingeles-eskakizuna duen lanpostua.
- (6) Iraungi beharreko lanpostua, C1 euskara-eskakizuna duen administrari lanpostu bihurtuko dena.
- (7) Izendapen askeko lanpostua, Legebiltzarreko Mahaikak izendatua Nafarroako Parlamentuko edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio C edo D mailako funtzionarioen artean.
- (8) Nafarroako Parlamentuko Legelarien Kidegoko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketarako deialdi bidez bete beharrekoa.
- (9) Parlamentuko teknikarien kidegoko funtzionarioekin bete behar da. Lanpostu honen ordainsariak A mailari dagokion soldata hartuko da oinarritzat gehi A mailako soldatari erreferentziatutako osagarriak.
- (10) Legelari Nagusiak izendatua, teknikari ofizialen kidegoko funtzionarioen artean.
- (11) Legelari Nagusiak izendatua, gelazainen kidegoko funtzionarioen artean.
- (12) B2 mailako euskara-eskakizuna duten bi lanpostu.
- (13) Itzulpen eta interpretazio eginkizunak dituen lanpostua.
- (14) C1 mailako euskara-eskakizuna duten bi lanpostu.
- (15) Iraungi beharreko plaza, liburutegi, dokumentazio eta artxiboko erdi-mailako teknikari-plaza bihurtzeko.
- (16) Nafarroako Parlamentuko Teknikarien Kidegoko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketarako deialdi bidez bete beharrekoa.

#### b) Behin-behineko langileak

##### Lehendakariaren kabinetea eta talde parlamentarioen laguntzaileak

Kop.	Lanpostua	Hautapen askea
1	Lehendakariaren kabineteburua	BAI
1	Lehendakariaren idazkaria	BAI
1	Mahaiko kideen idazkaria	BAI
12	Talde parlamentarioen laguntzaileak(*): 3 UPN; 3 Nafarroako Alderdi Sozialista; 2 EH Bildu Nafarroa; 2 Geroa Bai; 1 Nafarroako Alderdi Popularra; 1 Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa	BAI

(\*) Nafarroako Parlamentuak laguntzaile bat ematen dio talde parlamentario bakoitzari talde parlamentario bakoitzeko edo zatikiko. Halere, salbuespenez, beste laguntzaile bat izendatzea baimenduko da, epe jakin baterako baimendu ere, egoera horrek diraeino (laguntzaile hori izendatzen denean hasierako eta amaierako datak zehaztu beharko dira), baldin eta laguntzaileak amatasun-edo aitatasun-baimen ordaindua badauka.

##### Arartekoa

Kop.	Lanpostua	Hautapen askea
1	Idazkari Nagusia – Aholkulari teknikoa	C
4	Aholkulari teknikoa	C
2	Aholkularia	C
1	Kabineteburua	G
1	Nafarroako Arartekoaren kabinetea	G

C: Nafarroako Arartekoaren erakundeko behin-behineko kargua - izendapen askea

G: Kabinetea behin-behinekoa - izendapen librea

## 11-26/GPER-00004. 2025eko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko apirilaren 27an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 14.2 artikulua xedatzen du Mahaiak urtero prestatuko duela Legebiltzarreko funtzionario guztien zerrenda bat, urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera, eta bertan agertuko direla funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio egoera.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak 2025eko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda dela eta eginiko proposamena, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. 2025eko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen honako zerrenda hau onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

IZEN-ABIZENAK	MAILA	GRADUA	LANPOSTUA	ADMINIS-TRAZIO-EGOERA
<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>				
DOMÉNECH ALEGRE, SILVIA	A	6	Legelari nagusia (1) Legelaria	Jardunean
<b>Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren idazkaritza</b>				
ARRARÁS ANDUEZA, MARÍA CONCEPCIÓN	C	2	Administraria	Jardunean
SAN JOSE MENDIORIZ, IGNACIO	C	2	Administraria	Jardunean
<b>Prentsa Atala</b>				
MARTINEZ ITOIZ, JOSEBA	A	4	Prentsako behin-behineko atalburua Komunikazio teknikaria	Jardunean
JABEGABE	A		Ikus-entzunezkoen komunikazioko teknikaria (2)	
MAULEÓN DE ANTONIO, FERNANDO	C	5	Administraria (2)	Jardunean
<b>Protokolo Atala</b>				
MENA GARCÍA, TOMÁS	B	7	Protokoloko teknikaria (3)	Jardunean
ALDATZ PAYAN, GORKA	C	7	Administraria (4)	Jardunean
(5)	C		Protokoloko harremanetako idazkaria	
<b>ZERBITZU JURIDIKOAK</b>				
CAÑAS PALACIOS, ISABEL	A	2	Legelaria	Jardunean
LAURENZ ITOIZ, MIGUEL ÁNGEL	A	5	Legelaria	Jardunean
NÚÑEZ IRIARTE, MIGUEL ÁNGEL	A	6	Legelaria	Jardunean
ORDOKI GUARCH, IGNACIO	A	1	Legelaria	Jardunean
<b>Kudeaketa Parlamentarioko Atala</b>				
AIZCORBE ESAIN, ROGELIO	C	3	Administraria	Jardunean
CALVO MUTUBERRIA, HAIZEA	C	2	Administraria (2)	Jardunean
GADAÑÓN GÁRRIZ, ELENA MARÍA	C	2	Administraria	Jardunean
GARATEA ZUBIETA, LUIS MIGUEL	C	3	Administraria	Jardunean
LÓPEZ ELÍA, MARÍA	C	1	Administraria	Jardunean

<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>				
ZOZAYA GARRALDA, SERGIO	B	5	Zerbitzuburua Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Zerbitzu bereziak
JABEGABE	B		Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	
ENECOIZ SEGURA, FLORENCIO	C	7	Mantentze-lanetako burua Mantentze-lanetako teknikari-ofiziala	Jardunean
JABEGABE	C		Mantentze-lanetako teknikari-ofiziala	
ESNOZ LARREY, ANA ISABEL	D	7	Gelazain nagusia Gelazaina	Jardunean
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, JOSÉ IGNACIO	B	7	Gelazaina	Jardunean
MARTÍNEZ MORENTIN, PEDRO	D	1	Gelazaina	Jardunean
PÉREZ ALONSO, EDUR	D	1	Gelazainak (6)	Jardunean
RAMÍREZ PÉREZ, BELÉN	D	3	Gelazaina	Jardunean
RODRÍGUEZ CANTERO, ISAAC	D	2	Gelazaina	Jardunean
SAN JOSÉ GONZÁLEZ, ANA CRISTINA	D	3	Gelazaina	Jardunean
SAN JUAN LAITA, JESÚS MARÍA	D	3	Gelazainak (6)	Jardunean
SANTAMARÍA GASTÓN, ANDRÉS	D	5	Gelazaina	Jardunean
JABEGABE	D		Gelazainak (7)	
<b>ARGITALPENAK, ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>				
IRIARTE CILVETI, MIKEL	A	7	Zerbitzuburua Itzultzailea	Zerbitzu bereziak
JABEGABE	A		Artxibo eta dokumentuen kudeaketako goi mailako teknikaria	
ARANA BAREÑO, ANDER	A	6	Itzultzailea	Jardunean
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, XABIER	A	6	Itzultzailea	Jardunean
IRAZUSTABARRENA BARRIOLA, AINHOA	A	6	Itzultzailea	Jardunean
IRIZAR APAOLAZA, ANDER	A	6	Itzultzailea	Zerbitzu bereziak
ALEGRÍA GOÑI, M <sup>a</sup> CARMEN	B	6	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Jardunean
ITURRI VILLANUEVA, ARACELI	B	6	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Jardunean
SÁNCHEZ BORRACHERO, MARÍA JOSÉ	C	7	Administraria	Jardunean
JABEGABE	C		Administraria (2)	
MARTÍN CESTAO, NEREA	C	4	Transkribatzailea (2)	Jardunean
MAULEÓN DE ANTONIO, FERNANDO	C	5	Transkribatzailea	Ezedentzian
SEVINÉ RUIZ, MERCEDES	C	6	Transkribatzailea	Jardunean
JABEGABE	C		Transkribatzailea(2)	
JABEGABE	C		Transkribatzailea	
JABEGABE	C		Transkribatzailea	

<b>KONTU-HARTZAILETZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA</b>				
VIDÁN ASTIZ, LAURA	B	5	Zerbitzuburua Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Zerbitzu bereziak
ILUNDÁIN ILUNDÁIN, BEATRIZ	B	5	Aurrekontuen Kudeaketa eta Kontabilitateko behin-behineko atalburua Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
<b>Aurrekontuen Kudeaketa eta Kontabilitateko Atala</b>				
MAGIRENA ANCHORENA, JUANA MARÍA	C	1	Administraria	Jardunean
SÁNCHEZ ALDAZ, BEATRIZ	C	2	Administraria	Jardunean
<b>INFORMATIKAKO, IKUS-ENTZUNEZKOEN SISTEMETAKO ETA TEKNOLOGIAKO ZERBITZUA</b>				
MARZAL PARRA, M <sup>a</sup> ASUNCIÓN	B	7	Zerbitzuburua Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria Informatikoetan	Zerbitzu bereziak
JABEGABE	A		Informatikako goi mailako teknikaria	
ARANAZ JIMÉNEZ, EDUARDO	B	6	Sistemen kudeaketarako behin-behineko atalburua Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria Informatikoetan	Jardunean
<b>Sistemen kudeaketarako atala</b>				
OZCOIDI LATORRE, MIKEL	C	6	Sistema informatikoetako teknikari-ofiziala	Jardunean
ONGAY DOMENCH, MIREN GURUTZE	C	1	Ikus-entzunezkoen teknikari-ofiziala	Jardunean
<b>NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA</b>				
BALDUZ GIL, JORGE	B	5	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
ECHEVERRÍA BELOQUI, MARÍA ANTONIA	C	4	Administraria	Jardunean
JABEGABE	C		Administraria	

- (1) Izendapen librea, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien edo Nafarroako Gobernuko aholkulari juridikoen artetik. 2025eko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuko legelari batek betetzen du, Mahaiaren 2019ko abenduaren 16ko erabakiaz izendatuta.
- (2) C1 mailako euskara-titulua duen lanpostua.
- (3) B1 mailako ingeles-titulua duen lanpostua.
- (4) Iraungi beharreko lanpostua, C1 euskara-eskakizuna duen administrari lanpostu bihurtuko dena.
- (5) Izendapen askea, Legebiltzarreko Mahaiak izendatua Nafarroako Parlamentuko eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako C edo D mailako funtzionarioen artean. 2025eko abenduaren 31n Nafarroako Foru Komunitateko funtzionario betetzen du, Mahaiaren 2019ko abenduaren 16ko erabakiaz izendatuta.
- (6) B2 mailako euskara-titulua duen lanpostua.
- (7) Mantentze-lanetako laguntzailearen eginkizunak dituen lanpostua, iraungi beharrekoa.





